

**Kristobal Harizmendi**

**AMA BIRJINAREN  
OFIZIOA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Virginaren officioa da hirur officio*, Cristobal  
Harizmendi (faksimilea). Hordago, 1978

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00707.htm>

# **AMA BIRJINAREN OFIZIOA**

L'OFFICE DE LA VIERGE MARIE  
EN BASQUE LABOURDIN

Par C. Harizmendi  
Vicaire de Sare et prédicateur

Nouvelle édition conforme à la première de  
1658

Chalon-sur-Saone  
Imprimerie Française & Orientale E. Bertrand  
5, rue des Tonneliers, 5  
M. CM. I.

# APROBAZINOA

Nik Ioannis de Hariztegi Ziburuko errektor eta theologian profesorak irakurri dut Ama Birjinaren Ofizioa Molde Harizmendi Sarako iaun Bikarioak eta predikariak euskarara bihurtua: eztut ediren gure fede sainduaren kontrako gauzarik, eta bai nihor debozinora mobitzeko doktrina leiala, eta hala iuiatzen dut merezi duela inprima dadin eta argira eman dadin. Ziburuan martxoaren hamekan 1658.

I. de Hariztegi

## ORHOITZARI BATZU

### **Birjinaren ofizioa da hirur ofizio**

**Lehen ofizioa.**— Kandelairu biharamunetik abendoko lehen igandearen bezperetaraino.

**Bigarrena.**— Abendoko lehen igandearen bezperetarik Eguberri bezperaren bezperetaraino.

Konzepzinoan errazu *Te Deum*, eta Anunzio-azinoan ofizio guzia abendoko gisa.

**Hirurgarrena.**— Eguberri bezperako bezperetatik Kandelairu biharamuneraino.

Baskotik Trinitateko igandearen aitzineko larunbataren, Konpletetaraino berretu behar da *Alleluia*. Antiphonen bersuen eta Responsuen finean.

Komunzki *Te Deum*, erraiten da Eguberritik Septuagesimaraino eta Baskotik abendoraino. Abendoan ezta erraiten, ez ere Septuagesimatik Baskoraino, bai Birjinaren besterik denean.

[...]

# **MATUTINAK**

## **Inkarnazioaz**

*Ave Maria*

Agur Maria zerutik,  
Garaziaz bethea:  
Iainko launa zurekin da,  
O zeruen athea.

Benedikatua zara,  
Emaztetan gorenen:  
Nola baita Iesus haurra  
Gizonetan gehien.

O Maria Iainkoaren  
Ama konsekratua:  
Adamen narrio gabe,  
Xahu konzebitua.

Oren oro zuk dakizu,  
Zeren dugun premia:  
Orai eta gero bethi,  
Zakizkigu balia. Amen.

*Domine labia*

—Erabil itzatzu, launa,  
Arren ene ezpainak.

—Eta dizkitzudan xuxen,  
Laudorio pikainak.

*Deus in adjutorium*

—lainko launa euzu artha,  
Ene faboratzeko.

—launa zaite fite kexa,  
Ni penatik kenzeko.

*Gloria patri*

—Aitak duela loria,  
Bai seme gizonduak.

—Hala duela loria,  
Espiritu-Sainduak.

Alleluia, edo Laus tibi.

*Gonbidua*

Agur Maria zerutik,  
Garaziaz bethea:  
Iainko launa zurekin da,  
O zeruen athea.

*Dobla. Agur Maria, etc.*

**Utzazu erran gabe ondoko latina,  
eta ditxezan eskara:  
orobat non nahi berzetan:  
kida dira**

*Venite adoremus. Sal. 94.  
Adora Iainkoa*

Jende prestuak zatozte  
launa baithan boztera;  
Bil gaitezin laudorioz,  
Aingeruen oztera.



Hekin balsan dugun lauda,  
Gure salbatzailea.  
Izan faborez demogun,  
Aithor laudatzailea.

Agur Maria zerutik,  
Garaziaz bethea:  
Iainko launa zurekin da,  
O zeruko athea.

Gure Iainkoa xoilla da,  
Handien gainekoa.  
Eta gu gaineko hemen,  
Jende bihotzekoa.

Hunek eztu arbuiatzen  
Nihoiz ere, bererik:  
Bere meneko, dakuski;  
Bazter gorak iauxirik.

Iainko launa zurekin da,  
O zeruen athea.

Hunen eskuen obra da,  
Zerua, lurra, ura,  
Hark gu egin ginituen,  
Ez ordea guk hura.

Zatozte dugun adora,  
Belhauriko debotki:  
Eta nigarrez dezagun,  
Bekhatutarik ilki.

*Agur Maria, etc.*

Egun aditzen baitutzu.  
Hunen ahoko hitzak:  
Hetzaz eduk beza kontu,  
Erne zure bihotzak.

Desertuko hekin legez,  
Nihoiz gogortu gabe:  
Eta pontuan dakigun,  
Gure lainkoa iabe.

*lainko launa, etc.*

Berrogoi urthez ninzaien,  
Abisatzen egotu:  
Badariak hek baziren,  
Ez ansian gogortu.

Azkenekotz ein nuen,  
Iuramentu koleran:  
Etzirela sarthu behar,  
Parabisuko salan.

*Agur Maria, etc.*

Aitak duela loria,  
Bai Seme gizondusak:  
Hala duela loria,  
Espiritu-Sainduak.

Iainko launa zurekin da,  
O zeruen athea.

Agur Maria zerturik,  
Garaziaz bethea:  
Iainko launa zurekin da,  
O zeruen athea.

Quem terra,  
*Amatasuna gora*

Lurrak, urak, eta berzek  
Adoratua launa:  
Mariaren sabelean  
Sorthu duzu belhauna.

Iguzkia, ilhargiak,  
Kristo bai zerbitzatzen:  
Eta Kristo hau pietos,  
Birjina ganik sorzen.

Deus guzien egiteko,  
Zein baita botheretsu:  
Haren ama izaiteko,  
Izan zare dohatsu.

Zeruko mandatariak,  
Deithu zaitu grazios:  
Zuk garaziaz iaio haren,  
Gu baginen desiros.

Birjinaren Semeari,  
Sikulako Ioria:  
Aita bai Espirituari,  
Orobat aheria. Amen.

**Hunela bethi hasten dira  
Matutinak;  
baina ondoko salmoak aldizko  
hango egun seinalatuen arauaz  
Ondoko hirur Salmoak  
Igandean, Astelehenean, Orzegunean**

Domine Dominus noster. *Sal. 8.*  
*Kristoren exzelenziaz.*  
*Antiphona.* Benedikatua

O Iainko gure laun handi,  
Buruzagi lehena:  
Ala miragarri baita,  
Hemen zure ioena.

Ezen zure handitasun,  
Parerik eztuenak:  
Xitzen ditu bere handiz,  
Zerurik gorenenak.

Oraino dithiko haurrek,  
Zu zaituzte laudatzen,  
Bai hekin etsai herrosok,  
Bere hunez hondatzen.

Zerua da zure obra,  
Ilhargia halaber:  
Ezagutzaz badarotzut,  
Ahal bezanbat esker.

Bereziki laudatzen dut,  
Zure maiestatea:  
Zeren gizon huntan duzun,  
Zeure karitatea.

Aingeruez beherago,  
Egin duzu lehenik:  
Zeure obren buruzagi,  
Dadukazu gorenik.

Idi, ardi, abre larri,  
Orobat ehiziak:  
Hunen oinpera itutzu,  
Eta berze guziak.

Hunen oinpera ditutzu,  
Aireko hegastinak:  
Bai halaber itsasoko,  
Arrain sendo gordinak.

O Iainko gure laun handi,  
Buruzagi lehena:  
Ala miragarri baita  
Hemen zure izena.

Aitak duela loria,  
Bai Seme gizonduak:  
Hala duela loria,  
Espiritu Sainduak.

*Antiphona*

Benedikatua zara,  
Emaztetan gorenen:  
Nola baita Iesus haurra,  
Gizonetan gehien.

*Aña. Mirra.*

*Caeli enarrant. Sal. 18.*

*Kristo inkarnatu.*

Zeruek salhatzen dute,  
Iainkoaren loria:  
Haren obrek deklaritzen,  
Bere moldalaria.

Egunak hurrena hurren,  
Badu berdin salhatzen:  
Orobat zaika gaubori  
Laudorioz alhatzen.

Ezpoblu da ez nazio,  
Hitzkunzan ez treberik:  
Iainkoaren aditzeko,  
Zer hitzkunza hoberik?



Bazter batetik berzera  
Hedatu da soinua:  
Obrok bere baithan dute,  
Ozen asko manua.

Iguzkian hark daduka,  
Bere arrai egoitza:  
Ohetik esposa legez,  
Heldu zaitzu bozboza.

Beharrean heldu zaiku,  
Zeruaren gainetik:  
Gigante sendoa legez,  
Gu libratzea gatik.

Berriz badoha zerura,  
Eta du begiratzen:  
Behar orduan hark gaitu,  
Guztiok faboratzen.

Haren ordenanzak dira,  
Pontu guziez onak:  
Zuhur errendatzen dira  
Haren hitzez gizonak.

Alegeragarri dira,  
Haren manu argiak:  
Iustizia zuzenari,  
Diadotzu begiak.

Haren gorthea saildu da,  
Han ezta zimarkurik:  
Zuzenaren makurzeko,  
Eztu nihork eskurik.

Urre fiña baino dira,  
Hagitz gogokoago:  
Eta bai bereska baino  
Hagitzez eztiago.

Nik ere hargatik ditut,  
Zuzenak begiratzen:  
Eta gara bide hunez,  
launarekin goratzen.

Baina helas! nork dakitza,  
Bere falta guztiak?  
launa, barka iatzadatzu,  
Nik eragin guztiak.

Hek barkatzen zaiztanean,  
Arima xahutuko:  
Orduan zait bihotzori,  
Guztiz konsolatuko.

Orduan nik darozkitzut,  
Esker onak emanen:  
Eta zuk ene hitzetan,  
Plazer anhitz izanen.

O launa, zu zaitut alde,  
Zu ene lainko xoilla:  
Ene salbatzeaz arren,  
Idutazu axola.

*Aitak duela, etc.*

*Antiphona.* Sicut myrrha.

Mirra hautatuak legez,  
O lainkoaren Ama:  
Duzu bethi barraiatzen,  
Urrin onaren fama.

*Antiphona.* Ohearen.

Domini est terra. *Sal. 13.*

Kristo iausti da ifernura eta ian zerura

Munduko bazter guztiak,

Dira lainkoarenak:

Hetako gauza guztiak,

Dira haren zuzenak.

Hark xoillak zuen leihorra,

Gogorki zimendatu:

Itsasoaren gainean,

Ungi zuen fundatu.

Edozein ezta sarthuko,

launaren iauregian:

Edozein ezta iarriko,

Loriako begian.

Han sarzekotz behar zara,

Esku-bihotzez xahu:

Ez bihurri, ez traidore,

Ez makur edo bahu.

Hainari lainkoak dio,  
Eginen garazia:  
Eta bai bere lorian,  
Xedatuko bizia.

Zeren haina baitabila,  
lainko bilha munduan:  
Haiña gozatuko date.  
Haren bistaz zeruan.

Ea zeruko prinzeak,  
Zabal fitetz atheak:  
Jende prestuz bethetzeko,  
Erregeren gortheak.

Barrenekok diosote,  
Nor heldu da errege?  
Nork baitio munduari,  
Burupez eman lege.

Zabal itzatzue laster  
Xeruko portaleak:  
Hemen heldu gaizkitzue,  
Guduko partaleak.

Zein errege diozue,  
Dagoela sarzeko?  
Hura da berthuten launa,  
Ilki fitetz harzeko.

*Aitak duela, etc.*

*Antiphona.* Abte thorum.

Ohearen aitzinean,  
Maiz demotzagun kantak:  
Birjinaren laudatzeko,  
Behar bezain apuntak.

*Difussa est*

—Zure ezpainei badarie,  
Garazia naharo:  
—Hargatik hautatu zaitu,  
lainko launak gozoro.

*Pater*

Gure Aita zeruetan  
Glorioso zarena.  
Errezpetuz aipa bedi,  
Guztiz zure izena.

Zeruaren izaiteko,  
Egiguzu grazia:  
Eta bethi konpli bedi,  
Zure nahi guzia.

Egunoro behar gara,  
Iguzu hazmendua:  
Eta guk berzeri legez,  
Falten barkamendua.

—Eztezazula permeti  
Tenta gaiten bortizki.  
—Baina gaitzatzu gitzetik,  
Hastanduak iduki.

**Orai zoaz absolbazinora.  
Precibus: har lekzioneak,  
har Te Deum behar denean,  
orobat salmoen ondoan egizu bere  
aldietan**

**Ondoko hirur salmoak dira  
Asteartean eta Orzil.**

*Antiph. Ederraren.  
Eructavit cor. Sal. 44.  
Esposkanta*

Ene bihotzak nahi du,  
Erran gauza handirik:  
Erregeri nik darokat,  
Ene obra mamirik.

Ene mihia mintzo da,  
Erregeren laudatzen;  
Notari leialak legez,  
Ditut koplak moldatzen.



Gizonen artean ezta,  
Hura bezain ederrik,  
Sekulako laudorioz:  
Hark eztu nihon parrik.

Hau dabila botheretsu,  
Saihetsean ezpata:  
Eta fite du garaitzen,  
Noren nahi konbata.

Gogoak diotson legez  
Bethi da biktorios:  
Eta bethi konbatean,  
Dohatsurik lorios.

Eskun iokatzen ohi da,  
Nola miragarria:  
Hitz zuzen eta iustuen  
Duelarik garria.

O errege, zure kontrako,  
Fletxaz dira zaurtuko:  
Bihotzetan kolpaturik,  
Pobluok ihartuko.

launa, zure tronua da,  
Sekulako tronua;  
Eta zure zetroa da,  
Egiaren tronua.

Laket zaitzu iustizia,  
Iniustizia higitu:  
Handik zara sakratuor,  
Beraz gaintetik egun.

Zure beztimendek dute,  
Mirra baten urrina:  
Aloes eta bai berze,  
Ganzukari on fina.

Armario xahuetan,  
Zeudezin alxatuak,  
Erregen albak dira,  
Hanbatez prezatuak.

Eskunetik erregina,  
Dagotzu beztitua:  
Urre finez, perleriaz,  
Ederki propitua.

Neskatxak ikus bai beha,  
Ahanz bedi herria:  
Oraino zuen aitaren,  
Etxe hiragarria.

Erregeor bazaitzue,  
Harzaz amurusteko,  
Zuen laun eta lainkoa  
Agurrez iniusteko.

Bai Tiriako donzeillak,  
Presentez kargaturik:  
Poblu aberatsak ere,  
Hurbilduko bozturik.

Erregeren alaba da,  
Palazio sainduan:  
Arropa finez da behti,  
Hainik ezta munduan.

Hari darraitzan donzeillak,  
Ethorriko zaizkitzu:  
Hurbilenak hurbilenik,  
Ordenaz darraizkitzu.

Ethorriko dira bada,  
Miragarri boztuak,  
Zure tenpluan sartzeko  
Nola zure iustuak.

Haurrak burasoen ordain,  
Dira presentatuko:  
Eta mundutik ditzuzu,  
Prinzzetat bidalduko.

Generazino guziak,  
Dazaguen nor zaren:  
Mendez mende bethi zara,  
Hagitz predikaturen.

Hargatik pobluek ere,  
Iakinik merezia:  
Bethi laudatuko dute,  
Zure reberenzia.

*Aitak duela, etc.*  
*Aña. Specie tua.*

Ederraren eder hutsez,  
Zu bazara lorios:  
Eta handik erresuman  
Nahi bezain balios.

*Antiph.* Iainko Iainak.  
Deus noster re. *Sal. 45.*

## **Elizako sainduak Iainkoari fida zaitza**

Atsekabe guzietan,  
Gure Iainkoa iabe:  
Harekin zer nahi daikit,  
Deusik ez hura gabe.

Beraz ez naiz izituko,  
Iharrostean lurra:  
Ez mendiok anbilzean  
Ez piztean egurra.

Uhinok begite soinu.  
Itsasoak habarrots:  
Arrokak zathi bitezi,  
Bai mendiok iharros.

Badariak ni zeruko,  
Hibaiaren soinuak:  
Berekin boztuko nauke;  
Saindu dira manuak.

Iainkoa erdian dago,  
Ezta loak-hartuko:  
Hark nau ni behar orduan,  
Asko goiz libratuko.

Jendeak izitu dira,  
Erresumak nahasi:  
Lurra doha beldurturik,  
Lastimosez ihesi.

Hun harmaden lainkoa,  
Gure launa gurekin:  
Hau da gure iabe fina,  
Nor da beldur hunekin?

Ikus ungi eta mira,  
laun hura sendagaillak:  
Hunek plazer duenean,  
Hiltzen dire bataillak.

Harmak hausten daroskitzu,  
Bai zathitzen arkua:  
Ezin garait dakidio,  
Gizonen zimarkua.

Ikusazu trikaturik,  
Nola naizen lainkoa;  
Lurrean eta non nahi,  
Guztien gainekoa.

Huna harmaden lainkoa,  
Gure launa gurekin:  
Hau da gure iabe fina.  
Nor da beldur hunekin?

Aitak duela loria,  
Bai seme gizondauak:  
Hala duela loria,  
Espiritu sainduak.

*Aña.* Adjuvabit eam.

lainko launak bere bistaz,  
Bazaitu fermutuko:  
Hura erdian duzuno,  
Deusez ez damutuko.

*Aña.* Gu guztiok.  
Fundamenta. *Sal.* 86.

## **Eliza lurrean berretu**

Mendi sainduetan dira,  
Zeruko zimenduak:  
Iacopen egoitzak baino,  
Hagitzago sainduak.

lainkoaren hiria da,  
Guztia miragarri:  
Hura xoilla baizen ezta,  
Nihon deus laketgarri.



Nik nola dazagutenei,  
Badaroet erranen:  
Egipto, Babiloniaz,  
Hemen solas eginen.

Paleztinaz eta Tirez,  
Ethiopez halaber:  
Hunelako han sorthu zen,  
Huni ninzaion aiher.

Sion gatik erranen da,  
Hunelako han sorthu:  
Gorenenek Sion zuen,  
Dohatsurik fundatu.

Xehe, larri, poblu, prinze,  
Guztiak xehatuko:  
Nor zein diren ungi ditu,  
laun onak bahatuko.

Eta gu boztuko gara,  
laun hunen izenean:  
Lorios habitatzeko,  
Zeruko larrainean.

*Aitak duela.*

*Aña. Sicut laetantium.*

Gu guztioz zure baithan.  
Bozten gara birjina:  
Zeren zaren lainkoaren,  
Hain ama berregina.

*Difussa est gratia*

—Zure ezpainei badarie,  
Garazia naharo.  
—Hargatik hautatu zaitu,  
lainko launak gozoro.

Gure Aita: *gainerakoa ixilik*

—Eztezazula permeti,  
Tenta gaiten bortizki.  
—Baina gaitzatzu gaitzetik,  
Hastanduak eduki.

**Orai zoaz, errazu Precibus.  
Absolbazinoa eta gainerakoa  
Ondoko hirur salmoak dira  
Asteazkenean eta Larunbatean**

*Aña.* Boz zaitezi.

Cantate Domino. *Sal. 95.*

**Kristoren erresuma**

Kanta detzogun launari,  
Bere koplak sainduak:  
Kanta biatzo debotki,  
Lehen-gero munduak.

Kanta-hotsez dugun lauda,  
lainkoaren izena,  
Egunetik egunera,  
Kanta haren zuzena.

Jendek ere beakite,  
Hunen loriak berri:  
Eta nazio gaixtoak,  
Izanen dira larri.

Ezen hau da gure launa,  
laun bat miragarria:  
Iainko guztien gaineko,  
Xoilla beldurgarria.

Jentilen iainko guztiak,  
Dirade demonio:  
Gure Iainkoak egintu,  
Zeruak hain propio.

Hunen aitzinean dira,  
Ohoreak balios:  
Hunen saildutasunean,  
Aithor gorak lorios.

Hunen alde minza, bite,  
Jendetako leinuak:  
Ospe hutzez errepika,  
Loriako soinuak.

Ofrendak emotzitzue,  
Bere palazioan:  
Bai bihotz onez adora,  
Ez egon bizioan.

Beldur zakizkote segur,  
Lurreko habitantak:  
launak manatuko duke,  
Huna berri letrantak.

Lurra seguratu zuen  
Ezta hau trufatuko:  
Nazioak xuxen ditu,  
laun onak iuiatuko.

Lurra, ura, bai zerua,  
Guztiok boz bitezi:  
Lanek eta larrain onek,  
Bardin dute merezi.

Ezen orduan oihanak,  
Hagitz dira boztuko:  
Zeren zaikun gure launa  
Iuiatzera hestuko.

Xuxen iuiatuko duke,  
Mundu herri guzia:  
Eta iabetuko zaika,  
Egiaren zuzia.

*Aitak duela.*

*Aña. Gaude Maria.*

Boz zaitezi zu Maria,  
Hil duzu heresia:  
Zuk xoillak xuxenzen duzu  
Hain mundu nahasia.

*Aña. Zure xuxen.*

*Dominus regnavit. Sal. 96.*

## **Kristo daroku bere Aitaren eskunean**

Gure launa nabusi da,  
Harzaz boz bedi lurra:  
Irlak ere boz bitezi,  
Boz zaitezi zuhurra.

Haren inguruan dira,  
Hodoi eta lanhoak:  
Iustizia zuzenean,  
Tronuaren ahoak.

Aitzinduko zaika zua,  
Etsaien erretzeko:  
Hara bere sendagaillez  
Loria berretzeko.

Ximistez argitu dute,  
Ikharatu mundua:  
Azkenekotz etorri da,  
launaren gaztigua.

launaren bistan mendiok,  
Ezkoa bezain urtzen:  
Aitzinean humil zaio,  
Jende guztia zurtzen.

Zeruek salhatu zuten,  
launaren iustizia:  
Poblu guztiek ikusi  
Haren aithor bizia.

Laidoz betherik bihoaz,  
Idolen laudariak:  
Bethi laidoz bizitzeko,  
Laidoen bordariak.

Zuek haren aingiruok,  
Bethi lauda lainkoa:  
Sionek hau aditurik,  
Gal zezan ondikoa.

Iudako donzeillak ere,  
Handiro ziren boztu:  
launa, zure iustiziez  
Zeren ziren orhoitu.

Ezen zu zara lurrean,  
launetako gorena:  
lainko guztien gainetik,  
Pare gabe zarena.

laun maite duzuenok,  
Ez maita bizioa:  
Bere maitei hauk deraue,  
Bere palazioa.

Haren argiaz dakus,  
Bethiere iustuak:  
Bethi xuxen eta bozik,  
Bizi diraprestuak.



launa baithan boz zaitezte,  
lustuak bethiere:  
Zuen ungi libratzeko,  
Hark bethi du bothere.

*Aitak duela.*

*Aña. Dignare me.*

Zure xuxen laudatzeko,  
Birjina sakratua:  
Egin nazazu ni digne,  
Ez naizen garaitua.

*Aña. Birjina zu.*

*Cantate Domino. Sal. 97.*

## **Inkarnazioaz laudorio**

Kanta iatzogun launari,  
Eresia berriak:  
Zergatik egin baititu,  
Obra miragarriak.

Sendoaren sendo hutsez,  
Salbatu du mundua:  
Huna bere bothereaz,  
Nahi bezain iaundua.

Iaunak erakutsi zuen  
Bere salbamendua:  
Jenden bistan erakutsi,  
Bere iuiamendua.

Bere miserikordiaz,  
Orhoitu da finean:  
Haren graziez Israel,  
Faboratu denean.

Munduko muga guztiek,  
Ikusi dute berdin:  
Nola lainkoak eztuen,  
Bere baizen deus bardin.

Alegeraz kanta beza  
Orain mundu herriak:  
Kanta beza boskarioz,  
Huna obra larriak.

Kanta iazazue harpan  
Loriako tronuez:  
Adar ozen bai biola,  
Eta berze soinuez.

Kanta iatzotzu launari,  
Kantuak bere bistan:  
Itsasoak eta lurrak,  
Ethor bitezi bistan.

Hibaiak eta mendiak,  
Kontentez ioka bite:  
Zeren launak duen lurra,  
Hain iuiatuko fite.

Xuxen iuiatuko duke  
Mundu herri guzia:  
Eta iabetuko zaika,  
Egiaren zuzia.

*Aitak duela.*

*Aña. Post partum.*

Birjina zu erdi zara,  
Gelditurik birjina;  
Izaguzu Kristo ganik,  
Kristoren dohain ona.

*Abendoan, Angelus.*

Aingeruak Mariari,  
Diotso mandatua:  
Espiritu-sainduz dago,  
Humil izorratua.

*Difussa est gratia.*

—Zure ezpaiñei badarie,  
Garazia naharo.  
—Hargatik hautatu zaitu,  
lainko launak gozoro.

Gure Aita.  
—Eztezazula, etc.

*Absolbazinoa.* Precibus Maria bethi birjina  
dohatsuaren othoitzez eta merituz! eta saindu

guztien arartekoz Iesu-Kristo gure launak arren gida gaitzan zeruetako erresumara.

*Resp.* Amen.

*Versua.* Iube Domine. launa zuk othoi mana ezazu benedikatu garen.

*Benekizinoa.*

Birjina Mariak arren,  
Bere Semearekin;  
Hemen benedika gaitzan,  
Eta dohatsu egin.

—Amen.

## **I. Lectio. In Omnibus. Eccl. 24.**

Gauza guztietan bilhatu dut pausua lainkoaren etxean sartzeko, eta guztion Kreatzailleak eta ni kreatu nauenak erran darot: pausa ezazu ene etxean; oraino diost: zaude Iacob baithan; eta har ezazu zeure primeza Israelen, eta egitzi-tzu zeure erroak ene hautauten artean. Bada-riak, o launa, zuk euzu gutzaz pietate. —lainkoari esker.

*Responsua. Sancta.*

Eztakit zu nola lauda,  
O birjina saindua:  
Zeruk ezin idukia,  
Zuk iaio gizondua.

—Benedikatua zara,  
Emaztetan gorenen:  
Nola baita Iesus haurra,  
Gizonetan gehien.

—Eztakit zu nola, etc.

*Bersua.* Iube Domine launa, zuk othoi mana  
ezazu benedikatu garen.

*Benedizinoa. Ipsa virgo.*

Birjina Mariak arren,  
Bethi gaitzan sokorri:  
Garazien ardisteko,  
Zeren den miragarri.

—Amen.

## 2. Lectio. Et sic in.

Eta hunela Sionen finkatu naiz eta hire sainduaz errepausatu dut eta Ierusalemen da ene botherea: eta hedatu dira ene erroak jende ohoratu baten artean, eta lainkoaren onetan da jende haren primeza, eta ene egoitza da sainduen bethetasunean. Badariak, o launa, zuk euzu gutzaz pietate. —lainkoari esker.

*Responsua.* Beata.

—Maria dohatsu zara,  
Zu munduan agertu:  
Zeure Kreatzaille launa,  
Mundura duzu sorthu.

—Zeror egin zaituena,  
laio duzu mundura:  
Eta sekulakotz zara,  
Birjina lehen hura.

—Agur Maria zerutik,  
Garaziaz bethea:  
Iainko launa zurekin da,  
O zeruen athea.

—Zeror egin zaituena,  
Iaio duzu mundura:  
Eta sekulakotz zara,  
Birjina lehen hura.

*Bersua.* Iube Domine launa zuk othoi mana  
ezazu benedikatu garen.

*Benedizinoa.* Per Virginem.

Ama Birjinaz Iainkoak  
Diezagula eman  
Bake eta salbamendu  
Orai eta sekulan.

—Amen.



### 3. Lectio. Quasi cedrus.

Zedroa legez goratu izan naiz Libanoan, eta zipresa legez Sioneko mendian; palma legez goratua izan naiz Cadesen, eta arrosa landarea legez Ierikoan; olio ederra legez, landa alorretan, eta platanoa legez bideetako ur bazterretan. Kanelak eta balsamoak nola, nik hola barraiatu dut urrin ona, mirra hautatuak nola, hala eman dut urrin gozoa. Badariak, o launa, zuk euzu gutzaz pietate. —Iainkoari esker.

*Responsua.* Felix namque.

Ala zarela dohatsu,  
Birjina sakratua:  
Bai eta gai izan zaiten  
Gutziz ohoratua.

Zeren zuk sorthu baituzu,  
Kristo gure Iainkoa:  
Iustiziaren iguzki,  
Gustiz onhestekoa.

Arren othoitz egozazu,  
Poblu guztiarenzat:  
Baina guztiz orhoit zaite,  
Eliza gizonenzat.

Ararteko gerta zaite,  
Emazte debotenzat:  
Bai zutzaz orhoitzen diren  
Nazio guzientzat.

Zeren zuk sorthu baituzu  
Kristo gure lainkoa:  
Iustiziaren iguzki,  
Guztiz onhestekoa.

Aitari eta Semeari,  
Sekulako loria:  
Espiritu-sainduari  
Halaber aheria.

Zeren zuk sorthu baituzu,  
Kristo gure lainkoa.  
Iustiziaren iguzki,  
Gustiz onhestekoa.

*Te Deum.*

laungoikoa, zu zaitugu,  
Bihotz osoz laudatzen:  
Zu zaitugu geure launzat  
Ahalaz defendatzen.

Aita bethierekoa,  
Zeren baitzara segur,  
Handik emaiten darotzu,  
Lurrak ohorez agur.

Zuri bethi darozkitzu,  
Kantaz arkangeluak:  
Kerubinak, serafinak,  
Bai halaber tronuak.

Saindu, saindu, saindu, zara,  
O harmaden lainkoa:  
Hala zara nitzaz ere,  
Bethi laudatzekoa.

Zure loriaz betherik,  
Gora daude zeruak:  
Lurrean ere baitutzu,  
Sendagaillen kantuak.

Apostoluen korua,  
Zuri zaitzu minzatzen:  
Profeta sailduak bethi,  
Zure iustez prezatzen,

Oraino martiren ere,  
Harmada triunfanta:  
Bozkarioz darabilza,  
Zure lorien kantikak.

Munduaren bazterrera,  
Eliza da hedatzen:  
Zenbat ere handi baita,  
Hark zaitu zu laudatzen.

Maiestate handiz Aita,  
Bethi zara bethea:  
Orobat duzu loria:  
Haren Seme maitea.

Hekin bien bardin zara,  
Espiritu-saindua:  
Hala bardin darotzugu,  
Geure laudamendua.

Loriaren erregetzat,  
Kristo zaitut aithorzen  
Aitaren bethiko Seme,  
Zaizkularik ethorzen.

Gizonaren libratzeko,  
Noiz baitziren gizondu:  
Birjinaren sabel hura,  
Etzitzaitzun higundu.

Benzuturik herioa,  
Behar bezain trebeki:  
Ungi fidelei zerua,  
Zenerauen ideki.

Aita haste-gabearen,  
Loria bardinean:  
Han launa iarririk zaude,  
launaren eskunean.

Ethorriko zara noizpait,  
Gure iuiamendura:  
Erosi gaitutzun nola,  
Duzun gutzaz ardura.

Arren golarda gaitzaitzu,  
Liberalki sariaz,  
Zeure sailduen artean,  
Sekulako loriaz.

Kaltetik defendazazu,  
Gure galkor mendea:  
Eta zeure primezaren,  
Benedika jendea.

Zuk goberna, zuk mantena,  
Zuk mukhurra faborez:  
Egun oro zure gana,  
Gathozinatz ohorez.

Laudatuko zara launa  
Orai eta sekulan;  
Arren egun eztakigun,  
Bekhatuaz nihon lan.

Urrikal bekizu gure,  
Urrikal ondikoa:  
Zeren baitzara guretzat,  
Pietaten lainkoa.

Esperanza hark naduka,  
Zure baithan iosia,  
Zeren baitnaiz lehen ere,  
Zuk maitez erosia.

## **Abendoan ondoko gisa dira lekzioneak eta responsuak**

### **1. Lectio. Missus. Luc. 2.**

Iainkoak bidaldu zuen aingeru Gabriel Gali-  
leako hirira Nazaret daritzanera, Birjina gana,  
esposatua gizon batekin; huni zeritzan Ioseph,  
Dabiten etxetik eta Birjinari Maria. Eta hurbildu-  
rik diotso: Agur graziaz bethea, launa da zurekin;  
benedikatua zara emazten artean. Badariak, o  
launa , zuk euzu gutzaz pietate. Iainkoari esker.

*Resp. Missus.*

Aingerua heldu zaika,  
Maria Birjinari:  
Iainko launak bidaldua,  
Hitzaren mandatari.

Hain argi handiaz izi,  
Badakusa Birjina:  
Mandatariak diotso:  
Ez izi erregina.

Iainkoaren aitzinean,  
Izan duzu grazia:  
Zure ganik iaioko da,  
Iainko Seme bizia.

Iainkoak emanen dio,  
Aita Dabiten toki,  
Eta hunek behar ditu  
Mundukoak eraiki:



lainkoaren aitzinean,  
Izan duzu grazia:  
Zure ganik iaioko da,  
lainko Seme bizia.

## **2. Lectio. Quae cum.**

Hizkunza hunen aditzeaz izitu zen Birjina, eta gogetan zegoen, zer salutanzia othe zuen hura. Eta aingeriak diotso: ez uda Maria: aurkitu duzu garazia lainkoa baithan. Huna konzebituko duzu zeure sabelean, eta iaioko seme bat, eta deithuko duzu haren izena Iesus. Hau izanen da handia eta deithuko da Gorenaren semea, eta gure lainko launak emanen dio bere aita Dabiten ailkia, eta manatuko du lakopen etxean sekulakotz, eta haren erresumak eztu nihoiz izanen finik. Bada-riak, o launa, zuk euzu gutzaz pietate. lainkoari esker.

*Resp. Ave Maria.*

Agur Maria zerutik,  
Garaziaz bethea:  
Iainko launa zurekin da,  
O zeruen athea.

Ethorriko zaitzu goitik,  
Espiritu-saindua,  
Gorenaren berthuteaz,  
Saindurik agindua.

Iainkoaren seme date,  
Zuk iaioa deithuko:  
—Nik gizonik eztazagut,  
Nola da gerthatuko.

—Ethorriko zaitzu goitik,  
Espiritu-saindua:  
Gorenaren bertuteaz,  
Saindurik agindua.

### 3. Lectio. Dixit.

Orduan ditso Mariak aingeruari: nloa eginenda gauza. ezen nik eztazagut gizonik. Eta aingeruak diotso ihardetsiz: Espiritu saindua etorriko da gainetik zure gana, eta Gorenaren bertuteak itzalduko zaitu. Haratik zure ganik sortuko dena, saindu, deithuko da lainkoaren seme. Eta huna Elizabet zure kusina, eta hau seme batez izorra da bere zaharzean, eta huna ia seigarren ilhabetha, agorra daritza: ezen ezta lainkoa baithan ezinezko hitzik batere; orduan diotso Mariak: huna ni launaren zerbitzaria, egin bekit zure hitzaren, arauaz. Badariak o launa, zuk euzu gutzaz pietate. —lainkoari esker.

*Resp.* Suscipe verb.

O Maria har ezazu  
Zeruko mandatua:  
Eta fitez geldi zaiten,  
lainkoz izorratua.

Halatan deithuko zara,  
Andre bedinkatua:  
Emazte guztiak baino,  
Areago deithua.

Seme bat iaioke duzu  
Zarelarik birjina:  
Amarik birjina zara,  
Zeruko erregina.

Aitari eta Semeari,  
Sekulako loria:  
Espiritu-sainduari  
Halaber aheria.

Halatan deithuko zara,  
Andre bedinkatua:  
Emazte guztiak baino,  
Areago deithua.

# LAUDEAK

## Laudeak bisitazinoaz

*Ave Maria.*

*Deus in adiuto.*

—lainko launa, euzu artha,  
Ene faboratzeko, etc.

1. *ofiz.* Alxatua.

2. *ofiz.* Heldu.

3. *ofiz.* Mudanza.

Dominus regna. *Sal.* 92.

## Elizaren fundazinoaz

launak guztiz aginzen du,  
Handitasun handian  
Indar hutsik baizen ezta;  
Nahi duen aldian.

Hark daduka lurra fermu,  
Nihoiz eztadin higi:  
Hura handi den arauaz,  
Nik solas albanegi.

Hastetik ezarri zeitzun,  
launa zuri tronua:  
Oraino menderik etzen,  
Eta bai zu iaundua.

Hibaiek alxatu zuten,  
Bere boza zin-zinez:  
Alxatu zuten, o launa,  
Ezin ixil egonez.

Gurguriak igan dira,  
Uholdenez gorago:  
Azkenean iarzen dira,  
Ezinez gehiago.

Itsas-uhinok halaber,  
Badira miragarri:  
launa xit areago da,  
Diotsote elkarri.

Zure frogak segur dira,  
Ezta errezelurik:  
launa zu saindua zara,  
Ezta zure taillurik.

*Aitak duela, loria.*

*1. ofiz. Aña. Assumpta.*

Alxatua da Maria,  
Parabisu gainera:  
Aingeruak bozik dohaz,  
launaren aitzinera.

*2. ofiz. Aña. Missus:*

Heldu zaika Mariari,  
Gabriel aingerua:  
Han da Iosephen esposa,  
Sendagaillu purua.

*3. ofiz. Aña. O admira.*

Mudanza miragarria  
Kreatzaillea gizon:  
Gizonaren hazi gabe,  
Gizon eginik egon.

Birjina baithan sorthurik,  
Digun lainkotasuna:  
Hau da bada lainko baten,  
Lorios ontasuna.

1. *ofiz.* Alxatua.
2. *ofiz.* Agur Maria.
3. *ofiz.* Zu sorthu.  
Iubilate Deo. *Sal. 99.*

## **Lauda lainkoa**

Kanta beza bazter orok,  
lainkoaren loria:  
Kontent hutsez errepika,  
Laudorio ioria.

Aitzinera zatozkote,  
Bozkarioz betherik:  
Berdin berze mihon ezta,  
Hunelako gortherik.



lakizue launa dela,  
Bera bakhar lainkoa:  
Hark gu egin, ez gu geurok,  
Horra laudatzekoa.

Gu haren poblua gara,  
Haren hespilakoak:  
Beretzean badagotza,  
Aithor hunelakoak.

Lauda ezazue bada,  
laun onaren izena:  
Kantaz eta laudorioz,  
Ahal bezain maizena.

Ezen laun hau eztia da,  
Ontasunez fin gabe:  
Haren egiak badirau,  
Bera mugarri iabe.

*Aitak duela.*

1. *ofiz. Aña.* Maria Virgo.

Alxatua da Maria,  
Zeruko ganbarara:  
Han erregen erregea,  
Iarzen bere gogara.

2. *ofiz. Aña.* Ave Maria.

Agur Maria zerutik,  
Graziaz bethea:  
Iaun ona zeurekin duzu,  
O zeruen athea.

3. *ofiz. Aña.* Quando.

Zu sortu zinen pontuan,  
Andre Birjina ganik:  
Eskriturak bethe ziren,  
Han erranak eginik.

Iautsi zara gure bilha,  
Uri lanxurda legez:  
Laudorio darotzugu,  
Iaun zeure faborez.

1. *ofiz.* Zure urrin.
2. *ofiz.* O Maria.
3. *ofiz.* Moisek.

Deus, Deus meus. *Sal. 62.*

## **Elizaren desirak**

Goizgoizetik, o lainkoa,  
Ni baniz iratzarri:  
Eta zure gana ditut,  
Gogetak ezarri.

Ene arimak zu zaitu,  
Handiro desiratzen,  
Arago zait gorputzor,  
Desirkundez hiratzen.

Leku hau da desertu bat,  
Idor eta gogorra:  
Gain hori da leku saindu  
Eta zu bai gothorra.

Zure ontasuna bezain,  
Ezta bizi hain onik:  
Beraz eztut ixilduko,  
Aithorraren ezpainik.

Nik bizi naizeino zaitut,  
Zu bethi laudathuko:  
Eta zure izenean,  
Eskuak alxatuko.

Ase bekit arimori,  
Muin-urinez bezala:  
Neure mihiz kantatzeko,  
Laudorio leiala.

Ohean ere ni banaiz,  
Maiz zutzaz orhoituko:  
Zeren zu iabe zaitudan,  
Badut maiz beillatuko.

Boztuko naiz ni zurekin,  
Zu harturik geriza:  
Ene arimak zu zaitu,  
Bere saihets bortitza.

Ni hil nahiz dabilzanok,  
Hilen dira gathazka:  
Eta dira geldituko,  
Azearien bazka.

Bai errege boztuko da,  
launa baithan handiro:  
Hura baithan gezurtiak,  
Ezin iragan diro.

Deus miser. *Sal. 66.*

Iainko launa gutzaz duen,  
Handi pietatea:  
Pietatez bai erakuts,  
Bere begitartea.

Ezagutzeko lurrean,  
Zure bide saildua:  
Jendek ere iakiteko  
Zure salbamendua.

O lainkoa, zu pobluak,  
Leialki laudatzeko:  
Bai poblu guzia zuri,  
Xuxen gomendatzeko.

Zure iustiziez ere,  
Boz ditezin jendeak:  
Zeren xuxenzen ditutzun,  
Lehen-gero mendeak.

O lainkoa, zu pobluak,  
Baizaitu laudatuko:  
Bai lurrak bere fruitua,  
Ordua moldatuko.

Arren benekika gaitzan,  
Gure lainko lainkoak:  
Bai lainkoak benedikak,  
Beldur diten zokoak.

*Aitak duela loria.*

*1. ofiz. Aña. In odorem.*

Zure urrin onak gaitu,  
Lasterrean ekharri:  
Zure maitez hor darraitzo,  
Donzeillatxok elkarri.

*2. ofiz. Aña. Ne timeas.*

O Maria, zuk ez duda,  
Izan duzu grazia:  
Berdin zuk iaioko duzu,  
Iainko Seme bizia.

*3. ofiz. Aña. Rubum.*

Moisek ikusi zuen,  
Sasi bat ez erretzen:  
Nahi bada sua zeikan,  
Bethiere berretzen.

Amatasunaren karraz,  
Birjina zara xahu:  
Gu beharroz egiozu,  
Seme launari oihu.

1. *ofiz.* Benedikatua.
2. *ofiz.* lainkoak.
3. *ofiz.* leseko.

Benedicite omnia. *Dan. 3.*

## **Hirur morroinen kanta**

lainkoaren obra zuek,  
Benedika lainkoa:  
Guztiok ezaguturik,  
Guztion gainekoa.

lainkoaren aingeruok,  
Benedika halaber:  
Zuek zeruak ez ixil,  
Bai hura lauda laster.

Benedika ezazue,  
Zeru gaineko urak:  
Berthuteak benedika,  
Ez gal hartako gurak.



O iguzki-ilhargiak  
Benedika ozenki:  
Zuek zeruko ezarrok,  
Benedika iniuski.

Bai uriok ihinzokin,  
Hari benedikatzen:  
launaren espirituok,  
Zagozkote laudatzen.

Zuek sua eta karra,  
Benedika lainkoa:  
Zuek hotza eta uda  
Lauda fin gabekoa.

Benedika ezazue,  
O ihinz eta bruma:  
Benedika ezaue,  
O izotz eta horma!

Zuek o hotz eta elhur,  
Gau-egunok orobat:  
Lauda ezazue launa,  
Bozik ahal bezanbat.

Argi eta ilhunbeak,  
Emozue aithorra:  
Xismistak eta hodoiak,  
Lauda hain laun gothorra.

Ea lurra benedika,  
Benedika, lainkoa:  
Benedika eta lauda,  
Nola laun gainekoa.

Aldapak eta mendiak,  
Hari benedikatzen:  
Zuek ere zuhamuiok  
Haren errepikatzen.

Ithurriak hibaiekin,  
Haz garren gurguriaz:  
Itsasoa minza zaite,  
Dakizun aheriaz.

Baleak zeuen aldian,  
Ureko arrainekin:  
Benedika ezazue,  
Aireko xoriekin.

Ehizi eta bi abre,  
Nihon diren guztiaz:  
Guztiz bai gizakumeok,  
Egin solas eztiak.

Benedika beza finki,  
Orino Israelek:  
Bethi finik gabe lauda,  
Haren aho mazelek.

Ea zuek, o apezak,  
laiki laudoriora:  
laiki haren sehi oro  
Fitetz debozinora.

Zuek espiritu iustu,  
Eta bihotz humilak:  
Laudorioroz errepika,  
laun onaren ezkilak.

Ananias, Azarias,  
Orobat zu Misael:  
lainko hunen laudatzeko,  
Etzaratela mothel.

Dugun lauda finik gabe,  
Aita eta Semea:  
Espiritu sainduari,  
Bien aithor emea.

Zeruan, launa, baduzu,  
Laudorio fermua:  
Eneori hain fin gabez,  
Badut segur damua.

*1. ofiz. Aña. Benedicta.*

Benedikatua zara,  
O alaba laungoikoz:  
Bizitzean parte dugu,  
Zuk zure arartekoz.

*2. ofiz. Aña. Dabit ei.*

Iainkoak emanen dio,  
Aita Dabiten ailki:  
Iakob baithan mana dezan,  
Koroaz eternalki.

3. *ofiz.* Aña. Germinavit.

Ieseko arraza hozi,  
Eta ia da izorra:  
Iakob ganik agertu da.  
Sendagaillaz izarra.

Birjinak iaio daroku,  
Kristo salbatzailea:  
Bethi laudatua zaren,  
Gure kreatzaillea.

1. *ofiz.* Ierusemgo.

2. *ofiz.* Iaunaren.

3. *ofiz.* Huna Mariak.

Laudate Dominus. *Sal. 148.*

## **Kreatura ordenanza onean ezarriaz laudorioa**

Lauda, zeruak, lauda,  
Aire onez lainkoa  
Lauda leku goran gora,  
Guztion gainekoa.

Haren aingeruok ere,  
Lauda sendagail hotsez:  
Haren bertute guztiok,  
Orobat firrimotsez.

Lauda ezazue gora,  
Gure lainko ezta:  
Horko urok emozue,  
Laudorio guztia.

Ezen hark hitz bat ahotik,  
Athera bezain sarri:  
Zuek guziok zarate,  
Argitarat ethorri.

Hark eman darozkitzue,  
Zeini bere tokiak:  
Bethi xuxen ibilzeko,  
Legeak fin askiak.

Lauda pontuan lurretik,  
Kreaturok lainkoa:  
Dragoin eta usin orok  
Lauda gaingainekoa.

O su, elhor, babazuza,  
Eta berze tormentak:  
Emoitzue lainkoari,  
Aithorraren errentak.

Aldapak eta mendiak,  
Has kantuon laudatzen:  
Zuhaitz bethekor, alzifre,  
Has guztiok laudatzen.

Elhiok berze tropekin,  
Emozue aithorra:  
Suge eta hegastinok,  
Eztuzuen agorra.

Erregeok pobluokin,  
Prinze eta iujeok:  
Lurrean ladazazue,  
Laudatua zeruok.

Morroin, neskatxa, bai senton,  
Eta berze guztiok,  
Haren izenor ezagut,  
Gorenena iustuok.

Aithor hori badagoza,  
Zeru eta lurrean:  
Zeren bereok dituen,  
Alxatzen batzarrean.

Haren sainduak badute  
Laudorio handia:  
Beregainki Israeli,  
Zeren duen mamia.

Cantate Domino. *Sal. 140.*

Khanta bekizko launari,  
Finki kanta berriak.  
Eliza sainduan zaitza,  
Xit eder aheriak.

Israel orai boz bedi,  
Bere kreatzaillean:  
Siongo alabak ere,  
Kristo salbatzaillean.



Haren izena bezate,  
Gathanboretan lauda:  
Gitarrez eta maniurez,  
Ohorezki gomenda.

Ezen launak du plazera,  
Bere jenden ganean:  
Gutziz ere jende manso,  
Baketiar denean.

Halako jendeak dira,  
Loriaz gozatuko:  
Bai zeruko iauregian,  
Atseginez histuko.

Hekin ahoan aithorra,  
Eskuetan ezpata:  
Biktorios ilki dira,  
Irabazi konbata.

Infidelen kontra dira,  
Finki mindekatuko:  
Poblu gaixtoen ganean,  
Egia trenkatuko.

Haiñen erregeak dira,  
Zepoetan sarthuko:  
Hainen nobleak orobat,  
Esku-lothu hartuko.

Prestuek eginen dute,  
Halako iustiziaz  
Hau da prestuen ohore,  
Eta handi grazia.

Gure launa lauka bedi,  
Bere sainduak gatik:  
Zeren diren faboratu,  
Hanbat ere zerutik.

Lauda ezazue finki,  
Bere indar handian:  
Lauda bere handitasun  
Paregabe mendian.

Lauda klaroinen soinuaz,  
Eta tronpeta hantuz:  
Zistra, maniura, gitarra,  
Edo bi harpa kantuz.

Lauda ezkilez bildurik,  
Elkarrekin korura:  
Organoz eta biolatz,  
Edo berzez ardura.

Lauda zinbalez, albokaz  
Edo berzez lainkoa:  
Hats harzen duten guztiez,  
Hau da laudatzekoa.

*Aitak duela loria.*

*1. ofiz. Aña.* Pulchra.  
Ierusalengo alaba,  
O zein zaren ederra,  
Gazteluko harmadaren,  
Bardin duzu indarra.

*2. ofiz. Aña.* Ecce ancil.  
Iaunaren zerbitzari naiz,  
O aingeru zuzia!  
Zure hitzaren arauaz,  
Gertha bekit guzia.

*3. ofiz. Aña. Ecce Maria.*

Huna Mariak daroku,  
laio Salbatzaillea,  
Hau Baptistak erakutsi,  
Bekhatu kenzaillea.

*1.3. Kapituluua. Viderunt eam. Cant. 6*

Siongo alabek ikusi zuten eta dohatsutzat estimatu, eta erregeek laudatu zuten. —lainkoari esker.

*2. ofiz. Kap. Egredietur. Isai. III.*

leseren errotik ilkiko da zuhaitz landarea, eta haren, errotik iganen da lorea eta harn ganean pausatuko da lainkoaren espiritua. —lainkoari esker.

## O Gloriosa

O andre loriakoa,  
Zeruez goragokoa:  
Nork baitzaitu kreatu,  
Ugatzaz duzu bazkatu.

Eba tristeak galdua,  
Zutzaz dugu bidaldua.  
Egin zara zu leiho,  
Gu zeruan sarzeko.

O erregeren athea,  
Arraitasunez bethea:  
Boz bitezi jendeak,  
Huna salbo mendeak,

Birjinaren Semeari,  
Sekulako gloriori:  
Orobata Aita zuri,  
Bai Espiritu-sainduari. Amen.

1. ofiz. O Iainko.

*Bazkoz.* Agur.

2. ofiz. Espiritu.

3. ofiz. Misterio.

Benedictus Dominus. *Luc. I.*

## **Zakariaren kanta**

Israelgo Iainko Iaina,  
Zaren benedikatu:  
Zeren duzun pobluori,  
Urrikaldez salbatu.

Zeren atheratu duzun,  
Bere lazeriatik:  
Librarior bidaldurik,  
Dabid baten etxetik.

Prometatu zenerokun,  
Bethi danik profetez:  
Eta patriarka saildu  
Zure leial tronpetez.

Behin noizpait bidalzeko  
Gure salbatzaillea:  
Eta herrosen artetik,  
Gure libratzaillea.

Gure buraso zaharren  
Hunla kontentatzeko:  
Eta zeure testamentaz,  
Jendeak orhoitzeko.

Gure Aita Abrahamani  
Zin eginik hunela:  
Gure salbatzera zeror  
Ethorriko zinela.

Etsai herros gosearen,  
Menetik libratzeko:  
Eta beldurtasun gabe,  
Guk zu zerbitzatzeko.

Onhetsirik saindutasun,  
Eta bai iustizia:  
Hemen zure aitzinean,  
Pukhatzeko bizia.

Eta zuk, o ene haurra,  
Gorenaren profeta,  
Haren biden aphainzeko  
Aitzindurik tronpeta.

Erakutsiko diozu,  
Pobluari bidea:  
Penitenzia sailduaz,  
Salbatzeko jendea.

Iainkoaren urrikaldez,  
Hau behar da gerthatu:  
Zeren Iainkoak darokun,  
Gain hartarik behatu.

Heriotze ilhunean,  
Ez ilhunik uzteko:  
Baina bide dohatsuaz,  
Gu zerukotz hazteko.

*Aitak duela loria.*



*1. ofiz. Aña.* Beata Dei.

O zuk, lainkoaren ama,  
Maria dohatsua:  
Bethiko birjina xahu,  
Tenplu graziatsua.

Espiritu-sainduaren,  
Egoitza sakratua:  
Exenplu gabe baxharra,  
Plazer konsekratua.

Othoitz iazaguzu Kristo,  
Zure Seme maitea:  
Elizagizonean duen,  
Handi pietatea.

Duen emazte debotez,  
Oraino pietate,  
Eta zure faboreaz,  
Guk guztiok boztate.

*Baskoz* Regina caeli.

Agur erregina saindu,  
Boztasunez bethea: *al.*  
zeren sendo piztu zaitzun,  
Zeure seme maitea. *al.*  
Bere hitza konplitu du,  
Izaguzu partea. *al.*

Kyrie eleison.

launa euzu gutzaz pietate,  
Kristo euzu gutza pietate,  
launa euzu gutzaz pietate.

Domine exaudi orat.

launa enzun ezazu ene othoitza.  
Eta ene oihua bethor zure gana.

*Othoitza.* Deus qui de B.

Iainko ona, Birjina Maria dohatsuaren sabe-  
lean, aingerua zure mandatari izanik, gizon egin  
zarena, othoitzez gagotkitzu, egiazki hura zure  
Ama dala sinhetsirik, haren arartekoz zure ganik

izan dezagun fabore. Zein bizi baitzara mendez  
mende. —Amen.

2. *ofiz. Aña. Spiritus Sanctus.*

Espiritu-saindua da,  
O Maria iautsiko:  
Iainkoaren seme launa,  
Zure sabelerako. *al.*

*Kyrietik othoitza leheneko gisa Deus qui de B.*

3. *ofiz. Aña. Mirabile.*

Misterio miraria,  
Egun zaiku kontatzen:  
Bi naturaleza dira,  
Elkar gana iuntatzen.

Iainkoa egin da gizon,  
Lehenor gelditurik:  
Lehen etzuenik hartu,  
Ez ordea pairurik.

Hargatik ez nahasi da,  
Ez halaber zathitu:  
Ezta bera ganbiatu,  
Baina bai gu goititu.

*Kyrie eta Domine exaudi*  
*Othoitza. Deus qui sal.*

Salbamendu eternalaren lainkoa, Birjina Mariaren birjinitasun izorraren bertutez mundua salbatu nahi izatu duzuna, othoitzez gagozkitzu, haren arertekoz ardiets dezagun gure salbamen-  
dua, nola haren bidez izatu baitugi biziaren iabea, Iesu Kristo gure launa, zein bizi baita zurekin eta Espiritu-sainduarekin, mendez mende. — Amen.

*Orhoitzapenak sainduaz, bestaz, igandean,  
astelegunaz, halakorik denean.*

1.3. ofiz. *Sainduez. Sancti Dei.*

Gure lainkoaren saindu,  
Ararteko eztiak:  
Hor gomenda gaitzatzue,  
Salba gaiten guztiak.

launa baithan boz bitezi,  
Bethi jende prestuak:  
Eta loria bitezi,  
Haren bihotz iustuak.

*Othoitza.* Protege.

launa begira ezazu zeure poblua, eta eguzu  
Petri eta Paulo zure apostoluen eta berze zure  
apostoluen bitartekoz ere bethi fabore.

Omnes sancti

launa, zure saindu guztiek leku guzietan  
begite guretzat othoitz, hekin bizitze onaz eta  
merituez orhoiturik, hekin othoitzak balia dakiz-  
kigun, eta iguzu geure, mendean zure bakea, eta  
zure elizatik ken ezazu gure gaixtakeria guztia  
eta xuxen ezazu gure bidea, gure akzione eta

borondate guztia, eta zure zerbitzariena salbamenduko moldean: emezu gure ungi egilei sekulako ontasuna, eta defuntu leial guztiei sekulako pausuak Iesu Kristo zure seme gure launaren izenean. —Amen.

## *2. ofiz. Sainduetz. Ecce.*

Huna laun ethorriko da  
Saindu guztiak harekin:  
Egun hartan argi handiz,  
Argituko da: boz hekin.  
—Hura agertuko date,  
laun hodoi xurian:  
—Eta millionza saindu,  
Han haren konpainian.  
—launa entzun ezazu ene othoitza.  
—Eta ene oihua bethor zure gana.

## *Othoitza. Consciencias.*

launa othoitzez gagozkitzu, gure konzienziak bisitaturik arren garbi ditzatzun Iesu Kristo zure Seme gure launari bere saindu guztiekin ethor-

zen denean prestatua bat dakion bere egoitza  
gure baithan, zein bizi baita lainko, mendez  
mende. —Amen.

Domine exaudi.

—launa, enzun ezazu ena othoitza.

—Eta ene oihua bethor zure gana.

Benedicamus Domino.

—Dugun bethi benedika,

Gure lainko ezta:

—Demogun ahalaz esker,

Egin ahal guztia.

Fidelium animae.

—lainko ona zeren zaren,

Guztior pietoso,

—Fidelen arimok bethor,

Salborik lorioso. Amen.

*Hunela othoitzaren ondoan bethi akhabatuko  
duzu.*

*Prima segidan hasten ezpaduzu, errazu ixilik  
Pater.*

—lainkoak bigu bere bakea.

—Eta sekulako bizitzea.

*Errazu ondoan Salve, edo heldu dena. Kon-  
pletan ondoan*

*eta trikatzen zarenean gauza bera: trikatzen  
ezpazara,*

*zoaz aitzina, hauk erran gabe.*



# PRIMA

## Kristo sorzeaz

*Ave Maria*

—lainko launa euzu artha,  
Ene faboratzeko.

—launa zaite fite kexa,  
Ni penatik kenzeko.

*Bers.* Aitak duela loria,  
Bai seme gizonduak:

*Resp.* Hala duela loria  
Espiritu-sainduak.

*Allel. edo* Laus tibi.  
Memento salutis.

Orhoit zaite lainko launa,  
Nola zaren zu gizona:  
Birjina xahua ganik,  
Noizpait gorputzor izanik.

Maria graziatsua,  
lainkotiar dohatsua:  
Zaren ama, gure iabe,  
Hilzean ere utzi gabe.

O Kristo zure loria,  
Zure ama da Maria:  
Zuri aita bardin esker,  
Espirituari halaber. Amen.

1. *ofiz.* Alxatua.

2. *ofiz.* Heldu.

3. *ofiz.* Mudanza.

Deus in nomine tuo. *Sal. 53.*

## **Libratuaren eskerrak**

lainko launa iabe bekit,  
Zure izen saindua:  
Eta zure bothereaz,  
Dudan salbamendua.

launa ene othoitzari,  
Enzutera zakitza:  
Adizazu lotsa gabe,  
Ene ahoko hitza.

Lekortarrak iaiki dira,  
Ene kontra bortizki:  
Zutzaz kontu gutirekin,  
Narabilate gaizki.

Badariak zu lainkoa,  
Ene zara iabea:  
Ene arimaren ere,  
Pordoin eta habea,

Eror bedi kalteori,  
Etsai minon gainera:  
Gal itzatzu promes legez,  
Ez natzaten menera.

Bihotz onez nik darotzut,  
Bihurturen eskerra:  
Eta zinez laudatuko,  
Zure izen ederra.

Ezen zuk libratu nauzu,  
Lazeria guzitik  
Etsaiok ia galdu dira,  
Ni libro naiz hauzitik.

*Aitak duela loria.*

Benedixisti Domine. *Sal. 84.*

## **Kristoren sendagaillez**

launa faboratu duzu,  
Mugaz zeure primeza:  
Iakob libratuko duzu,  
Zeren zaren arteza.

Zure pobluari kulpa,  
Diozu barkatuko:  
Eta haren bekhatuez,  
Ez nihoiz orhoituko.

Gozatuko duzu zoriz,  
Zeure kolera mina:  
Bai hautsiko kolerari,  
Bere zorrotz hagina.

O lainkoa ken ezazu,  
Gure ganik kolera:  
Eta gaitzatzu burupez,  
Salbatzeko maillera.

Helas! bethi nahi duzu,  
Zeure kolera bizi:  
Bethi luzatuko duzu,  
Zeren dudan merezi?

Zer, etzaizku itzuliko,  
Emaiteko bizia:  
Zure baithan behar dugu,  
Alegria guzia.

Erakuts guzu, o Kristo,  
Ontasun eternala:  
Eta pontuan iguzu  
Salbamendu leiala.

Iainko launa ni banago,  
Zure hitzen begira:  
Bakearen ustea dut  
Etzaitzu laket hira.

Bakea igorzen duzu,  
Zure sainduen gana:  
Eztitezin bekhatuaz,  
Niholatan engana.

Alabainan zure hurbil,  
Beldurtiak daudezi:  
Halakoak bere baithan,  
Loria du merezi.

Ontasuna eta egia,  
Bidean dira batzen:  
Iustizia eta bakea,  
Elkarri zaizko lotzen.

Egiroki lurretik da,  
Bere mugan ilkia:  
Iustiziak zerutik du,  
Behatzeko ailkia.

Kristok emanen daroku,  
Faborea botherez:  
Gure lurrak iasaiteko,  
Fruituori faborez.

Haren aitzinean leial  
Dabila iustizia:  
Eta xuxen darabila,  
Bere urrats guzia.

*Aitak duela loria.*

Laudate Dominum. *Sal. 116.*

## **Iainkoa miserikordios eta egiati**

Nazio guziok iaiki,  
launaren laudatzera:  
Poblu guziok zatozte,  
Iainkoaz minzatzera.

Haren miserikordia,  
Heldu zaiku frankoki:  
Haren egiak badirau,  
Sekulan eternalki.

*Aitak, etc.*

*1. ofiz. Aña. Assumpta.*

Alxatua da Maria,  
Parabisu gainera:  
Aingeruok bozik dohaz,  
launaren aitzinera.

*2. ofiz. Aña. Missus.*

Heldu zaika Mariari,  
Gabriel aingerua:  
Hau da Iosephen esposa,  
Sendagailla purua.

*3. ofiz. Aña. O admira.*

Mudanza miragarria,  
Kreatzaillea gizon:  
Gizonaren hazi gabe,  
Gizon eginik egon.



Birjina baithan sorthurik  
Digun lainkotasuna:  
Hau da bada lainkoaren,  
Liberal ontasuna.

*1.3. ofiz. Kap. Kant. 6.*  
Quae est ista.

Nor da argi-albaren legez iaikitzen den hori,  
ederra ilhargia bezala, hautatu iguzkia bezala,  
izigarria gazteluko garnizoin arraniatuaren gisa.

—lainkoari esker  
—Zure xuxen laudatzeko,  
Birjina sakratua.  
—Egin nazazu ni digne,  
Ez naizen garaitua.  
launa euzu gutzaz pietate.  
Kristo euzu gutzaz pietate.  
launa euzu gutzaz pietate.  
—launa enzun ezazu ene othoitza.  
—Eta ene oihua bethor zure gana.

1. ofiz. *Othoitza*. Deus qui Virginalen.

Iainko ona, Birjina Mariaren sabela zeure lekutzat hautatu duzuna, othoitzez gagozkitzu, haren arartekoz propi gaitzatzu, eta egin digne, hartaz orhoitzapen egiteko, zein bizi baitzara mendez mende. —Amen.

—Iauna enzun ezazu ene othoitza.

—Eta ene oihua betor zure gana.

—Dugun bethi benedika,

Gure Iainko eztia.

—Demogun ahalaz esker,

Egin ahal guztia.

—Iainko ona zeren zaren,

Guztior pietoso.

—Fidelen arimok bethoz,

Salborik lorioso. Amen.

*Hunela errazu othoitzen aitzinean eta ondoan bethi.*

2. ofiz. *Kap. Isa. 24*. Ecce Virgo conci.

Huna birjinak konzebituko du eta iaioke seme bat, eta deithuko da Emanuel, eta ianen du burra, kaltearen gaitzesteko, eta ianen du ezia, ungiaren hautatzeko iakiteko. —Iainkoari esk.

*Othoitza.* Deus qui de B.

Iainko ona, Birjina Mariaren sabelean aingerua zure hitzaren mandatari izanik gizon egin zarena, othoitzez gagozkitzu, egiazki ura zure ama dala sinhetsirik haren arartekoz zure ganik ezan dezagun fabore zein bizi baitzara mendez mende laun. —Amen.

*3. ofiz. Othoitza.* Deus qui salutis.

Salbamendu eternalaren Iainkoa, Birjina Maria dohatsuaren birjinitasun izorraren bertutez, mundua salbatu nahi izatu duzuna, othoitzez gagozkitu, haren arartekoz ardiets dezagun geure salbamendua, nola haren bidez izatu baitugu biziaren iabea Iesu Kristo gure launa, zein bizi baita zurekin eta Espiritu-sinduearekin mendez mende. —Amen.

# TERZIA

## Arzainen adorazinoaz

*Ave Maria.*

—Iainko launa. etc. Memento. *Priman.*

1. *ofiz.* Alxatua da.

2. *ofiz.* Agur Maria.

3. *ofiz.* Zu sorthu.

Ad dominum cum. *Sal. 119.*

## Lurrean unhatuek zeruko desira

Unhatuan egin diot,  
Iainkoari marraska:  
Eta zoriz enzun ninzan,  
Zoriz nengion eska.

Gezurtien ezpainetan  
Ez utz ene arima:  
Traidoren mihiek ere,  
Ez nihoiz ni lastima.

Zer da mihi gaixtoaren,  
Nihon ere parerik?  
Non da haren zauriaren,  
Parreko dolorerik?

Beso sendo baten fletxak,  
Eztira hanbat bortitz:  
Brasa goriak eztiro,  
Hanbat mengoa hagitz.

Helas! hau da ene titxa,  
Bizi nadin herruan?  
Cedarko habitantekin,  
Hain luze desterruan?

Bakearen etsaiekin,  
Bizi ninzen bakean:  
Ni hekin minza banendin,  
Ni hek egotz nekean.

*Aitak duela loria.*  
*Levavi oculos. Sal. 120.*

## **Tribulazinoan fabore eske dago**

Mendietara dadutzat,  
Alxaturik begiak:  
Ea nondik dathozkedan,  
Behar naizen ungiak.

launa ganik ethortzen da,  
Ontasunen indarra:  
Nola egin baitzituen,  
Zerua eta lurra.

Oinik enharta dakizun,  
Eztu permetituko:  
Zure begiratzen ere,  
Ezta loak-hartuko.

Huna seguraz diotsut,  
Ezta loku matuko:  
Israel begiratzean,  
Ezta loak lothuko.

O Israel, o kristaua,  
Begira zaitzan launak:  
Estalkitzat launa duen,  
Bethi zure eskunak.

Iguzkiak etzaituke,  
Egunaz hiratuko:  
Ilhargiak hanbat guti,  
Gauaz doloratuko.

Iainkoak begira zaitzan,  
Bethiere kaltetik:  
Iainkoak konserba zaitzan  
Etsaiaren menetik.

Sarailkian, orai, bethi  
Begira zaitzan launak:  
Arimorren salbatzeko,  
Hark emanik dohainak.

*Aitak duela loria.*  
Laetatus sum. *Sal. 121.*

## Esperanza boztea

Enzuteaz ioanen gara,  
Gu launaren etxera:  
Alegriak eman darot,  
Ariman bonaxera.

Gure oinak Ierusalen,  
Finko zeuden atzetan:  
Handik etziren partitzen,  
Niholako moldetan.

Ierusalem da hiri bat,  
Kristauentzat egin:  
Zenbat jende han dabilan,  
Nik ezin imagina.

Harat igan ohi dira  
laun onaren leinuak:  
Han nahaste laudatzeko,  
Israelen donuak,



Han da bethiere xahu,  
Erregeren gorthea:  
Hain bethi bathuko zaitzu,  
Iustuaren, athea.

Ea dagiozun othoitz,  
Gure lainko launari:  
Bethiko bakea demon,  
Ierusalen onari.

Demon soldadu balenta,  
Bere dorretan franko:  
Zori onez bakerekin,  
Etsaiei gogorzeko.

Nik behinzat deskansua,  
Badiot desiatzen:  
Zeren han barrena diren,  
Ene hurkoak iarzen.

Are, zeren gure launak,  
Han baitu iauregia:  
Han laudatzen ere finki,  
laun onaren ungia.

*Aitak etc.*

*1. ofiz. Aña. Maria.*

Alxatua da Maria,  
Zeruko ganbarara:  
Han erregen erregea,  
larzen bere gogara.

*2. ofiz. Aña. Ave Maria.*

Agur Maria zerutik  
Garaziaz bethea:  
laun ona zeurekin duzu,  
O zeruen athea.

*3. ofiz. Aña. Quando.*

Zu sorthu zinen pontuan,  
Andre birjina ganik:  
Eskriturak bethe ziren,  
Han erranok eginik.

lautsi zara gure bilha,  
Uri lanxurda legez:  
Laudorio darotzugu,  
launa zeure faborez.

*1.3. ofiz. Kap. Eccles. 24. Et sic in Sion.*

Eta hunela Sionen finkatu naiz eta hiri sainduan ere pausatu dut, eta Ierusalemen da ene botherea. —Iainkoari esker.

*2. ofiz. Kap. Isa. 14. Egredietur virga.*

Ilkiko da zuhaitz landarea leseko errotik, eta lora iganen da haren errotik, eta launaren espirtua pausatuko da haren gainean. —Iainkoari esker.

Diffusa est gratia.

—Zure ezpanei badarie,

Garazia naharo:

—Hargatik hautatu zaitu,

Iainko launak gozoro.

Kyrie eleison.

launa euzu gutzaz pietate.  
Kristo euzu gutzaz pietate.  
launa euzu gutza pietate.

Domine exaudi.

launa enzun ezazu ene othoitza.  
Eta en oihua bethor zure gana.

*1.3. ofiz. Othoitza.*

Salbamendu eternalaren  
lainkoa etc.

*2. ofiz. Othoitza.* Deus qui de.

lainko ona, Birjina Mariaren  
Sabelean, aingerua etc.

# SEXTA

## Hirur erregeen adorazioaz

*Ave Maria.*

—Iainko launa. etc. Memento. *Priman.*

1. *ofiz.* Zure urriñ.

2. *ofiz.* O Maria.

3. *ofiz.* Moisek.

Ad te Domine. *Sal. 122.*

## Munduko eskarnioen ihesa

Zeru gainean nabusi,

Egiten zaren launa:

Alxatu dut zure gana

Neure begien maina,

Muthilek hala dakite,

Eskura begiratzen:

Zeren usatuak diren,

Nabusiz faboratzen.

Harmaturik neskameok  
Hala daude begira:  
Noiz daketen andretarik,  
Uste duten desira.

Orobat gu, launa, gaude,  
Bi begiok ondurik:  
Noiz gaitzaketzun konsola,  
Zeinez urrikaldurik.

Urrikal bekizu launa,  
Urrikal ondikoa:  
Zeren eskarnio handiz,  
Mina dugun pikoa.

Handi-alde irri batzuz,  
Arima dugu flako:  
Eta loriosen xirlez,  
Hurran gara hobiko.

*Aitak duela loria.*

Nisi quia Dominus. *Sal. 123*

## **Libramenduko eskerra**

Gurekin izan ezpaliz,  
Gure launa guduan:  
Israelek erran beza,  
Zer zateken orduan?

Gurekin izan ezpaliz  
Etsaiok alxatzean:  
Iretsiko ginituzten,  
Behar bada herzean.

Hekin kolera mintzean,  
Gure kontra bortizki:  
Behar bada behar ginen,  
Itsasorat aurtiki.

Gure buruez gainetik,  
Ioan zaten uholdea:  
Behar bada zuelarik,  
Gu hilzeko moldea.

Biz laudatu lainko launa,  
Begiratu baitzaitu:  
Handik bere horz-haginez,  
Ezkaituzte pukhatu.

Ehiztarien saretik,  
Ehizia bezala:  
Horra gu eskapaturik,  
O arima herbala.

Hautsi zaizte latxiguak,  
Eta bai gu libratu:  
Ehiztarioi laidoa,  
Bere sari sobratu.

Gure fabore guzia,  
launaren izenean:  
Zeru-lurren egileaz,  
Orhoitzen nizenean.

*Aitak etc.*

Qui confidunt. *Sal. 124.*



## **Iainkoari eskerra bere fabore handiez**

launa baithan fida dena,  
Sion mendiko pare:  
Hau Ierusalamen ezta,  
Ikhara nihoiz ere.

Sion inguratua da,  
Mendiz ingurunean:  
Bai pobluor bere launaz,  
Ori eta finean.

Ezta iustuen primezan,  
Gaixtaginik sarthuko:  
Ez iustuen bihotzetan,  
Bekhaturik sorthuko,

launa egiezu ungi,  
Bethiere prestuei:  
Bihotz artez eta xahu,  
Bizi diren iustuei.

Gaixtoekin ioanen dira,  
Bethiere gaixtoak:  
Bakea biz Israelen,  
Dio zure hitztoak.

*Aitak duela etc.*

*1. ofiz. Aña.* In odorem.  
Zure urrin onak gaitu,  
Lasterrean ekharri:  
Zure maitez hor darraitza,  
Donzeillatxok elkarri.

*2. ofiz. Aña.* Ne timeas.  
O Maria, zuk ez duda,  
Izan duzu grazia:  
Berdin zuk iaioko duzu  
Iainko seme bizia.

*3. ofiz. Aña.* Rubum.  
Moisek ikusi zuen,  
Sasi bat ez erretzen:  
Nahi bada sua zeikan,  
Bethiere berretzen.

Amatasunaren karraz  
Birjina zara xahu:  
Gu beharroz egozu,  
Seme launari oihu.

*1.3. ofiz. Kap. Eccles. 24. Et radicavivi in pop.*

Egintut halaber errok poblu ohoratua bait-  
han, eta poblu haren primeza da ene lainkoaren  
partean, eta ene egoitza sailduen bethetasu-  
nean. —lain.

*2. ofiz. Kapit. Luc. 1. Dabit ei Dominus.*

lainko launak emenen dio bere aita Dabiten  
ailkia, eta manatuko du sekulakotz lakopen  
etxean eta haren erresumak eztu nihoiz izanen  
finik. —lainkoari esker.

—Benedikatua zara,  
Emaztetan gorenen,  
—Eta benedikatua.  
Zure haurra gehien.

1. *ofiz. Othoitza.* Concede misericors Deus.

Iainko pietosa, gu herbalon faborea, othoitzez gagozkitzu Iesu Kristo gure launaren amaz orhoitzen garenok, haren arartekoz gure bekhatutarik ilki gaitezin Kristo beraren izenean. — Amen.

2. *ofiz. Othoitza.* Deus qui de beatae.

Iainko ona, birjina Maria dohatsuaren sabelean, Aingerua etc. *Priman bezala.*

3. *ofiz. Othoitza.*

Salbamendu eternalaren  
Iainkoa. *Priman bezala.*

# **NONA**

## **Birjina kandelairuz elizan sarzea**

*Ave Maria.*

—Iainko launa. etc. Memento. *Priman.*

1. *ofiz.* Ierusalengo.

2. *ofiz.* launaren.

3. *ofiz.* Huna Maria.

In convertendo. *Sal. 125.*

## **Bekhatutik ilki ondoko boztasuna**

launak Sion libratuan,  
Hain ginen konsolatu;  
Amets baten pare dugu,  
Iraganor iuiatu.

Orduan bethe zitzaikun,  
Boztasunez ahoa:  
Bazegokun kontent hutsez,  
Han mihior ithoa.

Orduan erraiten zuten,  
Jendek bere artean:  
Ala launak anhitz egin,  
Ezdeusen bitartean.

Bai segur ungi diote,  
Egin daroku anhitz:  
Alegriak boztu gaitu,  
Ezin erran zein hagitz.

Itzul ezazu, O launa,  
Gure gathiberia:  
Eguberdiko partean,  
Nola uholderia.

Nigarraren ereinzatik,  
Irria da iaiazen:  
Alegrien boztasuna  
Nigarretik da sorzen.

Ereiten ohi genduen,  
Anhitz nigar munduan:  
Gathibuok penaturik,  
Bizi ginen orduan.

Badariak azkenekotz,  
Ilki gara penatik:  
Eta garba bilzen hari,  
Nahi bezain konentik.

*Aitak etc.*

Nisi Dominus aedi. *Sal. 126*

## **lainkoa gabeko enseiu guztiak alfer dira**

Alferrik hariko gara,  
Etxearen alxatzen:  
Ez pazaiku lainko launa  
Beharrea lagunzen.

Alferrik erne daduka,  
Soldaduak begia:  
launak ezpadu guardatzen  
Hiriko iauregia.

Goizik etzin, beren iaiki  
Eta neka bizia:  
Hauk guziok alfer dira,  
Ezpadigu grazia.

Ezen launak badaroe  
Bere maitei pausua:  
Anhitz moian, ume, primo,  
Eta bai deskansua.

Ume hek dituzte iabe  
Bai paubes aldaketan:  
Nolan baleztari onek,  
Tragazak eskuetan.

Dohatsua da gizona,  
Hunelako haurrekin:  
Etsaiok eztuke plazan,  
Ithoko laidorekin.

*Aitak etc.*

Beati omnes. *Sal. 127.*



## **Iainkoaren beldurra zori ona da**

Iainko beldurri direnak,  
Huna segur dohatsu:  
Zeren launaren bidetan  
Dabilzan botheretsu.

Eskuz obratzen duzuna  
Ianen duzu gogotik,  
Izanen zira dohatsu  
Eta biziko bozik.

Zure emaztea beteko  
Zautzu fruitu ederrez,  
Nola etxe inguruan  
Mahats ondoa lorez.

Nola zuhaitz landareak  
Baitira udan hazten,  
Hala tutzu ikusiko  
Zure umeak handitzen.

Molde hortan du iustua  
Benedikatzen launak  
Benedika arren zitzala  
Sion gainetik berak.

Ikhus dezazula bizi  
Zareno bethi ungia,  
Semeen semeak eta  
Israelen loria.

*Aitak duela.*

- 1. ofiz. Aña. Ierusalengo.*
- 2. ofiz. Aña. launaren.*
- 3. ofiz. Aña. Huna Mariak.*

*1.3. ofiz. Kapit. In plateis.*

Bideetan kanela eta balsamo legez barraiatu  
dut urrin gozoa, eta mirra hautatua legez heda-  
tu dut urrin ona. —lain.

Post partum.

—Birjina zu erdi zara,  
Gelditurik birjina:  
—Izaguzu Kristo ganik,  
Kristoren dohain ona.

Kyrie etc.

*1. ofiz. Othoitza. Famulor.*

Othoi, launa, barka iazegu, zure sehiei bere falta guzia, gure obrer zure gogarako gauzarik egiten ahal eztugunok, salba gaitezen arren, zure seme gure launaren amaren arartekoz; zein bizi baita zurekin eta Espiritu-sainduarekin mendez mende. —Amen.

*2. ofiz. Kapi. Isa. 17. Ecce Virgo.*

Huna Birjina izorratuko da eta erdiko da seme batez, eta seme hura deithuko da Emanuel, eta ianen du burra, gaitzaren gaitzesteko, eta ezia, onaren hautatzen iakiteko. —Iain.

Angelus Domini.

Aingeruak Mariari,  
Diotso mandatua

Kyrie.  
Domine exaudi.

*2. ofiz. Othoitza. Iainko ona.*

*Bezperak baino lehen trikatzen bazara,  
erranen tutzu othoitzak laudeen ondoan  
bezala.*

# BEZPERAK

## Jesus Egiptora ihesi ioaiteaz

*Ave Maria.*

—Iainko launa. etc.

—Aitak duela etc. *al.*

1. *ofiz.* Errege.

2. *ofiz.* Heldu zaika.

3. *ofiz.* Mudanza.

Dixit Dominus Domino. *Sal. 109.*

## Iainko aitak Kristori egin ziotzan aginzak

Iainko launak erran dio,

Ene Iainko launari:

Ene seme, zu iar zaite,

Ene eskun agintari.

Zure etsaiak egotzirik,  
Oinpean lurreraino:  
Zure ohinen eskabela,  
Egin ditzakedaino.

Siondik bidalduko du,  
launak indarra franko:  
Etsai guztien artean,  
Zu laun ezagutzeko.

Ni zurekin zu guduan,  
Saindu goren izanen:  
Ezen enjendratu zaitut,  
Artizarretik lehen.

Zin egin dut eta zaren,  
Apez sekulakoa.  
Melxisedek handiaren,  
Handi ordenakoa.

Ene beharzen bazara,  
Eskunean naizate:  
Etsaiok zathi artean,  
Eztuket pietate.

Alxatuko zaitut gora,  
Etsaiok eroriko;  
Anhitz naziori diot,  
Buruz lur irioko.

Uholde minetik duzu,  
Bide hartan edanen:  
Hanbategorago duzu  
Burupeor izanen.

*Aitak duela etc.*

*1. ofiz. Aña.* Deum esset.  
Errege ohean zeino,  
O nolako urrina!  
Ene ohe xuriorrek,  
Isurzen zuen fina.

*2. ofiz. Aña.* Missus est.  
Heldu zaika Mariari,  
Gabriel aingerua.  
Hau da Iosephen esposa,  
Sendagailla purua.

3. *ofiz. Aña.* O admirab.

Mudanza miragarria:

Kreatzaillea gizon:

Gizonaren hazi gabe,

Gizon eginik egon.

Birjina baithan sorthurik,

Digun lainkotasuna:

Hau da lainko handiaren

Liberal ontasuna.

1. *ofiz.* Haren esku.

2. *ofiz.* Agur Maria.

3. *ofiz.* Zu sorthu.

Laudate pueri. *Sal. 112.*

## **Gauza beherez artha**

Haurrak lauda ezazue,

Gure lainko zuzena:

Lauda bihotz onez bethi,

lainko hunen izena.



Emanik koplaboruko,  
Orai eta sekulan:  
Lauda bedi gure launa,  
Sainduen sendagaillan.

Iguzkia ilkitzetik,  
Etzite mugaraino:  
Izen hura lauda bedi,  
Lauda bedi oraino.

laun guztien gorena da,  
Gure handi lainkoa:  
Loria bat hunek badu,  
Zeruez gainekoa.

Hunen parik nihon ezta,  
Hau da zero gainean:  
Humillenak ditu maite,  
Hauk alxatzen finean.

Alxatzen du pobreori  
Lurreko herrautsetik:  
Ongarrian datzanori,  
Badarama fitsetik.

Bere prinze handienen,  
Artean emaiteko,  
Prinze heztaren artean,  
Ohorez bethetzeko.

Haurrik etzuen amari,  
Emaiten dio haurra:  
Eta ama gelditzen da,  
Bozik etxetiarra.

*Aitak duela etc.*

1. *ofiz.* Laeva eius.  
Haren esku ezberra da,  
Ene buru azpian:  
Et' eskunor lothuko zait,  
Besarka bere aldian.

2. *ofiz. Aña.* Ave Maria.  
Agur Maria zerutik  
Garaziaz bethea:  
laun ona zeurekin duzu,  
O zeruen athea.

3. *ofiz.* Quando natus.  
Zu sorthu zinen pontuan,  
Andre Birjina gatik:  
Eskriturak bethe ziren,  
Han erranak eginik.

lautsi zara gure bilha,  
Uri lanxurda legez:  
Laudorio darotzugu  
launa zeure faborez.

1. *ofiz.* Ierusalengo.

2. *ofiz.* O Maria.

3. *ofiz.* Maisek.

Laetatus sum. *Sal. 121.*

## **Elizako ordenanzez**

Enzuteaz ioanen gara,  
Gu launaren etxera:  
Alegriak eman darot,  
Ariman bonaxera.

Gure oinak Ierusalen,  
Finko zeuden athetan:  
Handik etziren partitzen,  
Niholako moldetan.

Ierusalen da hiri bat,  
Kristauenzat egina:  
Zenbat jende han dabilan,  
Nik ezin imagina.

Harat igan ohi dira,  
laun onaren leinuak:  
Han nahaste laudatzeko,  
Israelen donuak.

Han da bethiere xahu,  
Erregeren gorthea:  
Han bethi bathuko zaitzu,  
Iustuaren athea.

Ea dagiogun othoitz,  
Gure Iainko Iainari:  
Bethiko bakea emon,  
Ierusalen onari.

Demon soldado balenta,  
Bere dorretan franko:  
Zori onez bakerekin,  
Etsaiei gogorzeko.

Nik behinzat deskansua,  
Badiot desiratzen:  
Zeren han barrena diren,  
Ene hurkoak iarzen.

Are zeren gure launak,  
Han baitu iauregia:  
Han laudatzen ere finki,  
laun onaren ungia.

*Aitak duela etc.*

*1. ofiz. Aña.* Nigra sum.  
Ierusalengo donzeillak,  
Ni belxik naiz ederra:  
Handik erregek sarthu nau,  
Bere gelan barrena.

2. *ofiz. Aña.* Ne timeas.

O Maria, zuk ez duda,  
Izan duzu grazia:  
Berdin zuk iaioko duzu,  
Iainko seme bizia.

3. *ofiz. Aña.* Rubum.

Moisek ikusi zuen,  
Sasi bat ez erretzen:  
Nahi bada sua zeikan,  
Bethiere berretzen.

1. *ofiz.* Negua.

2. *ofiz.* Iainkoak.

3. *ofiz.* Ieseko.

Nisi Dominus aedi. *Sal. 126.*

## **Iainkoa gabe ezta deus**

Alferrik hariko gara,  
Etxearen alxatzen:  
Ezpazaiku Iainko launa  
Beharretan lagunzen.

Alferrik erne daduka,  
Soldaduak begia:  
launak ezpadu guardatzen,  
Hiriko iauregia.

Goizik etzin, berant iaiki,  
Eta neka bizia:  
Hauk guziok alfer dira,  
Ezpadigu grazia.

Ezen launak badaroe,  
Bere maitei pausua:  
Anhitz moian, ume, primo,  
Eta bai deskansua.

Ume hek dituzte iabe,  
Bai paubes aldaketan:  
Nola baleztari onak,  
Tragazak eskuetan.

Dohatsua da gizona,  
Hunelako haurrekin:  
Etsaiak estuke plazan,  
Ithoko laidorekin.

*Aitak duela etc.*

*1. ofiz. Aña.* lam hyem.

Negua ia iragan da,  
Uriori athertu:  
Ene maitea zaik hortik,  
Behar nauzu ni hartu.

*2. ofiz. Aña.* Dabit ei Dominus.

Iainkoak emanen dio,  
Aita Dabiten ailki:  
Iakob baithan mana dezan.  
Koroaz eternalki.

*3. ofiz. Aña.* Germinavit.

Ieseko arraza hori,  
Eta ia da izorra:  
Iakob ganik agertu da,  
Sendagaillaz izarra.

*1. ofiz.* Ederra.

*2. ofiz.* Iauaren.

*3. ofiz.* Huna Mariak.

Lauda Ierusalem. *Sal. 147.*



## Laudatzeko gonbidua

Ierusalem laudazazu,  
Zure launa gogotik:  
Sion zuk lainkoa lauda,  
Halaber bihotzetik.

Zeren gogortu dituen,  
Atheak erroetan:  
Umeok ere sumatu  
Dohatsurik etxetan.

Zeren eman baitarotzu,  
Mugarritzat bakea:  
Ogi onez histu zaitu,  
Eta kendu nekea.

Hark manatzen du leihorra,  
Ekhar dezan bihia:  
Eta fitetz egitan du,  
Manu haren nahia.

Elhurra ilea legez,  
Hark ohi du manatzen:  
Eta bruma leihorrean,  
Hautsa legez banatzen.

Kristalaren iduriko,  
Horma miragarrriak:  
Bidalzeintu hark oraino,  
Hotz ikharagarriak.

Aire beroaren daki,  
Bere mugan egorzen:  
Elhur-hormok fite ditu,  
Uharretan bihurzen.

Hark deklaratu ziotzan,  
Iakopi bere hitzak:  
Bai Israel maiteari,  
Iustutasun artezak.

Ezxtio berzeri egin,  
Halako faborerik:  
Edozeini ez agertu,  
Bere iudiziorik.

*Aitak etc.*

*1. ofiz. Aña. Speciosa.*

Ederra zara Maria,  
Eta guziz plazenta:  
Iainkoaren ama saindu,  
Konpli eta perfeta.

*2. ofiz. Aña. Ecce Ancilla.*

Iaunaren zerbitzari naiz,  
O aingeru zuzia:  
Zure hitzaren arauaz,  
Gerta bekit guzia.

*3. ofiz. Aña. Iam hyem.*

Huna Mariak daroku,  
Iaio salbatzaillea:  
Han Mariak erakutsi,  
Bekhatu kenzaillea.

*1.3. ofiz. Eccles. 24. Ab initio.*

Hastetik eta mendeak baino lehen kreatua naiz, eta dathorren menderaino ez naiz eskastuko eta en egoitza sailduan haren aitzinean zerbitzatu dut. —Iainkoa.

## *2. ofiz. Kap. Isa. 11*

Ilkiko da lesiko errotik urthumea eta haren erroko lorea sumatuko da, eta haren gainean pausatuko de launren espiritua. —Iainko.

## **Ave Maris stella**

Agur Nort-izarra,  
Ama Iainkoarra:  
Agur erregina,  
Gutziz berregina.

Gabrielen hitzaz  
Behar nola trazaz:  
Iguzu bakea,  
Ebaren merkea.

Ken itzatzu gaitzak,  
Argi bihotz belzak:  
Bai hastn fortunak,  
Izan ontasunak.

Erakuts zarela,  
Xit Ama fidela,  
Gure faboreko,  
Iauna behatuko.

Birjina zuzia,  
Manso berezia:  
Gaizatzu garbiki,  
Zerukotz iduki.

Iguzu zerura,  
Bidea segura,  
Iesus ikusteko,  
Harekin bozteko.

Ezkerrak Aitari,  
Eta Semeari,  
Espiritu Iaunari,  
Orobat hiruri. Amen.

—Zure ezpainei badarrie,  
Garazia naharo.

—Hargatik hautatu zaitu,  
lainko launak gozoro.

1. *ofiz.* Ama zori.

2. *ofiz.* Espiritu.

*Bazkoz.* Agur.

3. *ofiz.* O misterio.

Maginificat. *Luc. 1.*

## **Amatasunez eskerrak**

lainko launak ezarri nau,  
Bihotzean bozturik;  
Zeren nauen sekulakotz  
Ezarri salbaturik.

Ene humiltasunera  
Ungi zuen behatu,  
Horra nondik behar naizen  
Dohatsutzat famatu.

Ezen launak egin darot,  
Hain berze garazia:  
Nola baitu saindutasun,  
Bothere, zuhurzia.

Hala bethi danik, hura,  
Ohi da bihotz bera:  
Haren beldurti direnen,  
Gizakumen aldera.

Urgulluen alderakotz,  
Eztu hala usatzen:  
Baina ditu bere ganik,  
Bere besoz haizatzen.

Errege prinze handiok  
Egotz kadirotarik:  
Eta humillok han ezar,  
Botherez alxaturik.

Goseok bethetzen ditu,  
Dagoten ontasunez:  
Aberatsok bai biluzten,  
Eztagoten moianez.

Israel bere haurxo,  
Hala zuen tratatu:  
Bere miserikordiaz,  
Zeren baitzen orhoitu.

Promes hau egin zerauen,  
Abrahami lehenik:  
Eta hunen hazikoei,  
Sekuladotz hurrenik.

*Aitak duela etc.*

*1. ofiz. Aña.* Beata mater.  
Ama zori onekoa,  
Bai Birjina xahua:  
Egiozu semeari:  
Gure alde oihua.

*Bazkoz.* Regina.  
Agur erregina saindu,  
Boztasunez bethea:  
Zeren saindu piztu zaitzun,  
Zure seme maitea.



Bere hitza konplitu du,  
Izaguzu partea. *al.*

—launa euzu pietate.

—Kristo euzu gutzaz pietate.

—launa euzu gutzaz pietate.

launa enzun ezazu ene othoitzza,  
Eta ene oihua bethor zure gana.

*Othoitzza. Concede nos.*

Iainko launa, zuk otho zure garaziaz gu zure  
zerbitzariok gozaraz gaitzatzu arimako eta gor-  
putzeko osasuna eternalaz, eta Maria bethi Birji-  
naren arartekoz libra gaitzatzu presenteko tris-  
teziak, eta sekulako boztasunaz gozaraz, Iesu  
Kristo zure seme gure launaren izenean: —  
Amen.

*2. ofiz. Aña. Spiritus.*

Espiritu saindua da,

O Maria iauntsiko:

Iainkoaren seme launa,

Zure sabelerako.

—launa euzu gut.

*Othoitza.* Deus qui de B.

Iainko ona, Birjina Maria dohatsuaren sabelean, aingrua zure mandatari izanik gizon egin zarena, othoitzez gagozkitzu, hura egiazki zure ama dela sinhetsirik haren arartekoz zure ganik izan dezagun fabore, zein bizi baitzara mendez mende iaun eta agintari. —Amen.

*3. ofiz. Aña.* Magnum.

O misterio handia!  
Huna handi primeza:  
Birjinaren sabelori,  
Kristok beretzat traza.

Gizonen parterik gabe,  
Hain Iainko launa gatza;

Nazio guziok zaitza,  
Minzatuko boztatez:  
O launa, zuri loria,  
Hain berze pietatez,

—launa euzu etc.

*Othoitz*a. Deus qui sal.

Sabamendu eternalaren  
lainkoa etc.

*Saindu guzuez, igandiaz, eta gainerakoa,  
laudetako gisa.*

# KONPLETAK

## Birjinaren iragatzaz eta koroaz

*Ave Maria*

—Gure salbatzille launa,  
Zuk gitzatzu gu bihur.

—Eta kolerarik gabe,  
Zure legean zuhur.

—Iainko launa euzu artha,  
Ene faboratzeko.

—launa zaite fite kexa,  
Ni penatik kenzeko.

*Aitak duela etc.*

*Saepe expug. Sal. 128.*

## **Elizaren biktoria aixtoen laidotan**

Neure haurretik ni naute,  
Anhitz aldiz zehatu:  
Israelek aithor beza,  
Nola naizen penatu.

Neure haurtetik ni naute,  
Anhitz aldiz zehatu:  
Badariak ni ez naute,  
Bere sarez tiratu.

Egin ahalik eztute,  
Gaixteok gupitetsi:  
Trabailu luzez luzaro,  
Ni nahiz ardietsi.

Ordea lainko iustuak,  
Hautsi dio lepoa:  
Sion hunen herrosari,  
Irabazi konpoa.

Gaixtoak bilhaka bitez,  
Teilla gaineko belhar:  
Nihork ebeki gaberik  
Berak ditezin ihar.

Eskurik eztu betheko,  
Hau ebakitzailleak:  
Ez besorik ere falez,  
Haren bilzailleak.

Bideazkoek eztute,  
Gaixtorik laudatuko:  
Ez launaren izenari,  
Nihoiz gomendatuko.

*Aitak duela etc.*  
*De profundis, Sal. 129.*

## **Arima penatuaren othoitza**

Zuri launa, oihu datzut  
Leku beheretarik,  
Zuk, Jauna, enzun ezazu  
Ene oihua amulsurik.

Idekazu belarria  
Zure bihotzarena  
Aditzekotzat oihua  
Ene othoitzarena.

Katekiei zagozkenean  
Beha begi samurrez,  
Nola zure aitzinean  
Irakuts daite beldurrez?

Ezen zu ganik gizonak  
Behar du barkamendu:  
Hartakotz zure legea  
Ene arimak maite du.

Zu baithan ene arima  
Bethikotz da fidatzen:  
Zu zaitu gogo guziaz  
Bere launzat hautatzen.

Israel ere goiz, arrats,  
Egun edo gau ilhun,  
launari dagoko galdez  
Balitz bezala zordun.

Alabaina launa baithan  
Da miserikordia,  
launa ganik heldu zauku  
Gure erospen handia.

Eta hark erosiko du  
Israel bekhatutik,  
Baita argira helduko  
Bere belz ilhunbetik.

*Aitak duela.*

Domine non est exalt. *Sal. 130.*

## **Humiltasunaren esperanza**

launa nihoiz ez naiz hazi  
Bihotz gorapenetan,  
Nihoiz ez ditut alxatu  
Begiak urguilutan.



Ez naiz ere gauza eder,  
Handietan ebili,  
Ez dut miragarrietan  
Gogorik erabili.

Aitzitik begiratu dut,  
Ahal humiltasuna:  
Ene ariman barrena,  
Dathorren ontasuna.

Dithiko haurraren legez,  
Arimor bazkatzeko:  
Eta behar naizen gauzan,  
Zurekin azkarzeco.

Israelek launa baithan,  
Hala du esperanza:  
Zeren zuk eman diozun,  
Bethiko seguranza.

*Aitak duela etc.*  
Memento salutis.

Orhoit zaite Iainko Iaina,  
Nola zaren zu gizona:  
Birjina Maria ganik,  
Noizpait gorputzor izanik.

Maria graziatsua,  
Iainkotiar dohatsua:  
Zaren othoi gure iabe:  
Hilzean ere utzi gabe.

O Kristo zuri Ioria,  
Zure ama da Maria:  
Zuri aita bardin esker,  
Espirituari halaber. Amen.

*1.3. ofiz. Kap. Eccles. 24. Ego mater pulchrae.*

Ni naiz amorio ederraren ama eta beldurtasunarena, eta handitasunaren eta esperanza sainduarena. —Iain.

Ora pro nobis.

—Iainkoaren amagutzaz,  
Egizu zinez othoiz:  
—Kristoren promesen digne,  
Aurki gaitezin horkotz.

*2. ofiz. Kap. Isa. 17. Ecce Virgo concip.*

Huna birjina izorratuko da eta semez erdiko,  
eta deithuko da Emanuel; ianen du burra, gaitza-  
ren gaitzesteko, eta eztia, onaren hautatzen  
ikasteko. —Iainkoari esk.

Angelus Domini.

—Aingeruak erran nola,  
Birjina Mariari.  
—Espiritu-sainduz zaika,  
—Gatzatu semeori.

- 1. ofiz. Iainkoaren.*  
*Bazkoz. Agur Eregi.*
- 2. ofiz. Espiritu-Saind.*
- 3. ofiz. O misterio.*  
S. Simeonen *Kanta.*

Orai launa uzten nauzu  
Neure zahartatean:  
Promes zenerotan legez,  
Bake handi batean.

Zeren ikusirik nohan,  
Zure salbatzaillea:  
Ene bekhatu handien,  
Prinze barkatzaillea.

Hau aspalki zinioen,  
Agindu jendeari:  
Promes hau aitzindu zeikan,  
Pobluen mendeari.

Argi hunez behar dira,  
Infidelak argitu:  
Israel zure poblua,  
Loriara goititu.

*Aitak duela etc.*

*1. ofiz. Aña. Sub tuum.*

Iainkoaren ama ona,  
Zuk gaitzatzu geriza,  
Gure beharretan enzun,  
Gure humil othoitza.

O zu benedikatuak,  
Arren gaitzatzu libra;  
Zaren arauaz ezazu,  
Bethi guretzat obra.

*Bazkoz. Regina.*

Agur erregiña saindu,  
Boztasunez bethea: *al.*  
Zeren saindu piztu zaitzun,  
Zeure seme maitea. *al.*

Bere hitza konplitu du  
Izaguzu partea. *al.*  
—launa euzu etc.

*Othoitza. Beatae & glo.*

Iainko ona, zuk othoi Maria bethi Birjina doha-  
tsu eta loriakoaren arartekoz begira gaitzatzu,

eta sekulako bizitzera eraman, Iesu Kristo gure  
laun zure seme haren beraren izenean. —Amen.

—launa, enzun etc.

—Dugun bethi benedikta,  
Gure Iainko ezta.

—Demogun ahalaz esker,  
Egin ahal guztia.

### *Benedizinoa.*

Ene Iainko Aita, Seme,  
Espiritu-sainduak:  
Arren benedikta gaitzan  
Xuxendurik orduak. —Amen.

### *3. ofiz. Magnum.*

O misterio handia,  
Huna handi primeza:  
Birjinaren sabelori,  
Kristok beretzat traza.

Gizonen parterik gabe,  
Han lainko launa gatza:  
Nazio guziak zaitza,  
Minzatuko boztatez;  
O launa zure loria,  
Hain berze pietatez.  
—launa euzu piet.

*Othoitza.* Salbamendu etc.

*2. ofiz. Aña.* Spiritus Sanctus.

Espiritu-saindua da,  
O Maria iautsiko:  
lainkoaren seme launa,  
Zure sabelerako.

—launa euzu gut.

*Othoitza.* lainko ona, birjina Maria dohatsua-  
ren sabelean, aingerua etc.

*Errazu, Salve edo denborakoa bere othoitza-  
rekin.* Alma Redemptoris.

*Abendotik kandelairu  
biharamuneraino*

Gur' erosleraen ama,  
Garaziaz bethea,  
Itsasoetako izar,  
Bai zeruko athea,

Eroriak gudenei  
Iguzu sokorria  
Eta poblu beharrari  
laio agintaria.

Naturaleza handizki  
Espantitu zinuen,  
Noiz ere zure egilea  
Zuk egin baitzinuen;

Eta berriz noiz obratu  
Baitzinuen ezina,  
Erdi baino lehen eta  
Erdi ondoan Birjina.



Darotzula Gabrielelek  
Khurtuz erraiten agur,  
Zutan aurki bekhatorek  
Bezate bihotz samur.

—Birjina zu erdi zara.

*Othoitza.* Deus qui sal..

Salbamendu eternalaren etc.  
Ave Regina caelorum.

*Kandelairu biharamunetik Bazkodino*

Agur zeruen andrea,  
Aingeruen nabusi,  
Agur zeruen athea,  
Zuk mundu ilhunari  
Duzu argi ekharri;  
Loria zaite Birjina  
Zeren zaren berregina.  
Agur, o guztiz perfeta.  
Kristori gu bai presenta.

—Zure xuxen laudatzeko,  
Birjina sakratua,  
—Egin nazazu ni digne,  
Ez neizen gaixatua.

*Othoitza. Concede mis.*

Iainko pietosa, gu herbalon fabora, othoitzez gagozkitzu, Iesu-Kristo gure launaren amaz orhoitzen garenak, haren arartekoz ilki gaitezin gure bekhatuetarik, Iesu Kristo gure launaren izenean. —Amen.

*Larunbat sainduko konpletetarik  
Mendekosterenondoko  
Larunbataren bezperetaraino*

Agur Erregina saindu,  
Boztasunez bethea.  
Zeren sendo piztu zaitzun  
Zeure seme maitea. *al.*  
Bere hitza konplitu du,  
Izaguzu parte. *al.*

—Boz eta boz zaite Maria Birjina, *alleluya*;

—Zeren egiazki piztu baita Kristo launa. *al.*

*Othoitza.* Deus qui per.

Iainko ona, Iesu Kristo zure seme ona pizteaz mundua boztu duzuna, iguzu othoi haren ama Birjina Mariaren kariaz sekulako bizitzearen boz-kario perfeta, Kristo gure launaren izenean. — Amen.

Salve Regina

*Trinitatearen igandeko lehen bezpertarik  
Abendoaren Igandeko lehen bezperetaraino*

Agur erregina ama,  
Bihotz emea segur:  
Gure bizi, eaperenza  
Eta iabe agur.

Nigarrezko haranetik,  
Arren enzun auhenak:  
Eba flakoaren ume,  
Desterru gabilzonak.

Lurrekoen ararteko,  
Ama zara hautatu:  
Othoi zure anik garen,  
Begitartez maitatu.

Desterru hunen ondoan,  
Liberaturik pasaia:  
Zeruan erakuts guzu,  
Semearen bisaia.

Ugatz sailduz hazi duzu,  
Dikeguna loria:  
Adi, o manso, o bera,  
O Birjina Maria. Amen.

—Iainkoaren Ama gutzaz,  
Egizu zinez othoitz.

—Kristoren promesa digne  
Aurki gaitezin horkotz.

*Othoitz*a. Omnipotens semp.

Iainko guztiz botheretsu, bethierekoa, Maria Birjina loriakoari Espiritu sainduaren obraz gorputza eta arima zure semearen egoitza digne egin ditzazuna, othoitzez gagozkitzu, harzaz orhoitzen garenok libera gaitzatzun gaitz suerte guzietarik eta sekulako heriotzetik, Iesu Kristo gure launaren izenean. —Amen.

Divinum auxili.

—Iainkoaren faborea,  
Bethi dela gurekin.  
—Eta gaitzan gu zerura  
Zoriz alxa berekin.

Amen. *Errazu ixilik.* Pater. Ave. Credo. *Bethi konpletan ondoan orobat akhaba.*

# ORHOITZAPENAK

[...]

Zure pizteaz pizteko,  
Zeren baitzara bozten.

Bazko hunen ohoretan,  
Egiguzu grazia:  
Eta zure mereziez,  
Konpli dadin guzia. Amen.

## *Astelegunez*

Astelegun edo besta,  
Guzia da zurea:  
Bethi zuri badagotzu,  
Guzien ohorea.

Egia hunen arauaz,  
launa zaitut laudatzen:  
Eta zure maiten balsan,  
Naizenor gomendatzen.

## *Bazkoz lekora igande guziaz*

launa zure nahiz dira,  
Bizi direnak bizi:  
Zu berekin zaitueino,  
Eztu nihork zer izi.

Ezin zu gabe bizia,  
Egon dite hagoan:  
Zure zerbitzu saildua,  
Bethi begot gogoan. Amen.

## *Garthetan*

Urthean laur aldiz dira,  
Garthak begiratzeko:  
Hauk betarik batzu dira  
Ungi probetxatzeko.

Nahi duzun bezain ungi,  
Zenzatzeko gorputza:  
launa zuk molda iaguzu,  
Barur hautzaz bihotza.

## *Besta buruez*

Eguberri, Mendekoste,  
Bazko, bai Salvatore:  
Zure asko laudatzeko,  
Ez naiz asko bithore.

Badariak badarotzut,  
Ahal laudorioa:  
Haren hordain zuk indazu,  
Zeure amorioa. Amen.

## *Apostoluaz*

Apostolu saildua  
Egin zara iakinsun:  
Zeren duzun Iesus ona:  
Bere hitzean enzun.

Haren hitzez bizitzeko,  
Izaguzu grazia:  
Haren zerbitzu sailduan,  
Finitzeko bizia. Amen.



## *Ebangelistaz*

Ebangelista saindua,  
Zaren benedikatu:  
Zeren duzun erranori,  
Obraz ongo frogatu.

Zure hitzen obratzeko,  
Izaguzu grazia:  
Eta bethi garaitzeko,  
Etsaien malizia. Amen.

## *Martirez*

O martir zinetakoa,  
Anhitz duzu pairatu:  
Etsaiak bere sektara  
Ezinean tiratu.

Bekhatuaren hilzeko,  
Eman duzu bizia:  
Izaguzu Kristo ganik  
Horratzeko grazia. Amen.

## *Ipizpikuaz*

launa, zeure bizi onaz,  
Ilki zara saindua:  
Ilhargiak gauba nola,  
Argiturik mundua.

Hots arren erakutsguzu,  
Bethi zeure kredita:  
Horko loria dezagun,  
Bide hunez merita. Amen.

## *Doktoraz*

Kristoren eskolan launa,  
Ungi zara zuhurtu:  
Arau harzaz anhitz duzu,  
Loriara bihurtu.

Egiaren predikatzen,  
Bethi zinen penatu:  
Egiaren mantenatzen,  
Nahi dugu finatu. Amen.

## *Abadeaz*

launa zu izatu zara,  
Fraiden buruzagia:  
Ordenako pontuetan,  
Ez niholaz nagia.

Hitzez baino lehen zinen,  
Exenpluz mantenatzen:  
Konpliaraz iazaguzu,  
Zer baithara manatzen.

## *Kofesoraz*

launa munduan etsaiez,  
Anhitz zara tentatu:  
Kristok leial aurkiturik,  
Loriakotz hautatu.

Orai gu gudian gara,  
Badakizu zein flako:  
Izaguzu garazia,  
Salborik horratzeko. Amen.

## *Birjinez*

O birjin sakratuak,  
Ala zuek dohatsu:  
Birjinari Kristok dio,  
Anhitz plazer mainatsu.

Urrezko sala barbian,  
Kristo pasaiatzean:  
Lehenak zuek zarate,  
Sehi haren hatzean.

Guztiok zaraten gero,  
Kristoren adiskide:  
Guztiok ager zaitezte,  
Gure ganakotz kide. Amen.

## *Alhargunaz*

Andrea Kristori zaika,  
Laket bizi prestua:  
Bihotz humil, eme, manso,  
Debot eta iustua.

Bide hunez izan dizu,  
Ori duzun loria:  
Izaguzu guri ere  
Horrako-biktoria. Amen.

[...]

# EXAMENA

[...]

Ez konplitu botua edo promesa.

Ez errendatu lainkoari eskerrik bere fabore ingratez.

Ez xuxendu lainkoarn loriara zure intenzino guziak.

Ikusi lainkoa mortalki ofensatzen eta zu ez sentitu.

Fidatu launkoaren miseriakordian sobra edo eskas.

Utzi obra onik irri beldurrez, edo egin hipokri-siaz banaloriaz.

Bizi bekhatua ez lainkoa gatik hanbat, nola bere penagatik.

Ez murmuratu lainkoa edo haren obrez.

Ez gibelatu lainkoaren ofensa edo berzena.

Ez perkuratu etxekoen ontasun espirituala.

Ibili lainkoaren ofensatzen peril nabarbenet-han.

Trufatu kofesoren edo superioren konseillu onez.

## **2. Mira zer huts egin duzun nihoren kontra**

Hartu nihoren ontasunaz damu, edo kalteaz plazer.

Ez barkatu nori beri falta, bai kautelatu zeurea.

Izan edo izatu bihotzean erresapiorik, herrarik.

Eman konseillu gaiztoa, eman nahi gabez hobe.

Laudatu nor bere gaizkiaz.

Zehatu edo mehatxatu kolera.

Gibelatu nehor ungi egitetik.

Gogan behartu edo arinki iudikatu.

Desfamatu. ohorean ukitu.

Eranzun bere baia naturala, edo irriz iokatu.

Trufatu superiozez: desobeditu gauza handian.

Eman iurarazteko narritarik edo iurarazi.

Ez pagatu zorra, bai pagarazi etzegotzuna.

Etxean bizi bruitos, gogor, gaitz, koleros.

Kruel beharrenzat eta ez pietos.

Utzi obra miserikordiazko korporal edo espiritualik egin gabe.

### **3. Mira zer huts egin duzun zeure kontra**

Izatu gutizia lohirik edo pensamendi desonestik zeure nahira.

Ian sobera edo gastau friandizan.

Ez ungi begiratu zure bista, begia, beharria, eta berze zensuak.

Ibilli danzan edo berze konpainiatan perilekin.

Bizi beztiz edo berzez ergel edo kuriosegi.

Ez aitortu zeure kolpa, bai desenkusatu.

Egotu denbora sobera miraketan edo berreginzen.

Lorifikatu moianean, ohorean, ahaikoan, adiskidean sobera.

Ibili bekhatuko perilean zeure buruari sobera fidaturik.

Nazaitzez ez ohoratu edo konturik eduki bre ohoratzekoea.



lakin nahiz ibili edozein gauza kuriosez, premia gabe.

Erai anhitz solas bano, gezurti, arin.

Izatu themos, despazient eta burgaitz.

Izatu etxeko lanetan edo egitekoetan ansikabe eta ez axolduri.

Kontratu zaizkonz deliberazino onari eta utzi denbora galzen solasketan.

Mira zaite zazpi bakhatu mortalez: manamenduez; eta guztiz zure ofizioaz; ikuz nola, zer, zegatik eta zenbat aldiz.

## **Zer intenzinoz behar duzun errezibitu**

Intenzinoa nolako, obra halako: badira onak eta gaixtoak: huna onak.

1. Errezibi ezazu lainkoaren ganako amorioz: zure arima bere kreatorrearen amorioan barre-nago sarzeko intenzinoz.

2. Errezibi, kzure eritasuna lainko midiku nabusiaren prezenzian deklaratzeko eta sendatzeko.

3. Sakramenduan sakrifizio hunez zure barkamendua kobratzeko.

4. Deusetan ezinik eztuen launaren garaziaz zure asaldu gaixto guztia kasatzeko.

5. Kristoren izenean Aita eternala ganik zenbait garazia partikular ardiesteko.

6. Ontasun errezibituez sakramenduan eta ezin aitari deus agradago dakidio bere Semea han ofrendatzea baino.

7. Lauda sainduak lainkoa sakrifizioko laudorioz laudatzeko: han xit zaika laket.

8. Biziak eta hilak gatik Kristoren odol prezia-tua lainkoari ofrendatzeko: hau da ararteko baliosa.

9. Kristoren heriotzeaz eta pasioneaz orhoitzeko berak manatzen gaitu hunetara.

10. Lainkoaren borondatea konpliteko gatik da iakiteko sakramenduaren bide lainkoa gurekin eta gu bethi lainkoarekin egoiteko.

11. Kristoren espiritua bilhatzeko: hau da xede prinzipala: errezibi ezazu desira hunez, eta hau konplizekotz bizi zite karitatez, humiltasunaz, pazienziaz, obedienez, espirituko pobreziaz, mortifikazionaz eta bertutez.

*Huna intenzino gaixtoak.*

1. Onhazun tenporalak ardietsi nahiz edo izan nahiz errezibitzea da bizios: ezen bianda hau guzia da espiritualala, ez lurrera iatsteko, bai zerura igaiteko.

2. Munduak saindu estima edo fama bazinitza nahiz errezibitzean da hipokrisia eta banaloria.

3. Usanza xoillez edo berzen lehiaz, eta nagi edo ezdebot famatzeko beldurrez errezibitzea da bizioz: examina inenzinoa.

4. Lehenik eta beregainki konsolamendu espiritualen bilhatzea gatik errezibitzea da bizios: zeren intenzino hau sorzen da zure amorio proprialetik, bizios baita: ordea hain gabe konsolamendu hek bere burez heldu.

# MEDITAZINOAK

## Kofesa aitzineko meditazioa

### 1. Pontua

Pisa konfesio perfektak zenbat ontasun handi berekin dakharten.

1. han bardatzen zaizkitzu bekhatu kofestu guziak eta inoranzia hoben gabekoz ahanziak.

2. Han ilkitzen zara heriotze eternaletik, eta sendotzen halakotara ez erorzero.

3. Han izaiten duzu garaziz berze bertute isurriekin: han arima erraberritzen da bere barreanean osoki, eta bekhatuaz mortifikatu ziren obrak, obra nihilduak pizten dira: bere meritura bihurzen.

4. Han uzteintutzu deabruak laidoz betherik, eta aingeruak bozteko sуетarekin.

5. Han zure arimori bihurzen zaika bekhatuak eraman zioen bere edertasuna eta sosegu ona.

## **2. Pontua**

Kofesioan fabore hauk ardiestekotz behar zara ungi baliatu ondoko laur pontuez.

1. Kodesa delienziaz: examina kurioski zure pensamenduak, hitzak eta obrak: hauta kofesor gaia eta prestua.

2. Kofesa osoki: ez utz batere zeure faltaz: erran kontua eta kondizino pisu guzia.

3. Kofesa leialki: ez nihor akhusa edo zeror exkusa.

4. Presenta kofesioan humilki konfesoraren penitentzia harzeko eta gauza iustu guzian obeditzeko borondate fermuarekin.

## **3. Pontua**

Kofesioan egiten duzu anhitz akta bertutezko.

1. Fedez: sinhestean nola lainkoak zure kofesorari emen dioen zure absolbatzeko autoritatea.

2. Esperanzaz: barkamenduko fidanzian.

3. Karitateaz: lainkoa ganako amorioz urrikitura mugitzean.

4. Obedienziaz: lainkoaren borondatea konpliztea gatik hura obratzean.

5. Humiltasunaz: kofesoraren presentziaz ahalkatzean.

6. Tenperanziaz: gehiago bekhatu ez egiteko promesean eta emendioan.

7. Prudenziaz: zure osasunaren kobratzeko erremedio hain onaz eta baliosaz baliatzean.

#### **4. Pontua**

Pisa nola kofesatu baino lehen zure arimak ( bekhatu mortaletan deino) duen ifernuko itxura bat, zeren han barrena ostatatzen duzu deabrua, eta zu ez ahalkatzen hain miseria laidagarriaz.

## **Errezibi aitzineko meditazioa**

#### **1. Pontua**

Hemen pisatuko duzu nor, nori, nondik, nola, norekin eta zergatik heldu den.

1. Nor heldu da? Iesu Kristo egiazko lainkoa eta egiazko gizona.

2. Nori heldu zaika? Bekhatore ignoratari; kreatura miseriez eta eskasiez kargatuari.

3. Nonkik heldu da? Zerutik; aitaren eskunetik; parabisutik, aingeruek eta dohatsuek adoratzeko duten lekutik.

4. Nola heldu da? O espantua! heldu da humiltasun guziarekin bere iainkozko maiestatea sakramenduko iduriez amorio ahandirekin estalirik.

5. Norekin heldu da? Aingeru millioekin eta arima dohatsuekin anhitz konpainian.

6. Zergatik heldu da? Zure salbatzeko: zurei bere garazia emateko: zu berekin bat egiteko eta zeruko primezan zurei parte emateko.

## **2. Pontua**

Heldu da ez lurreko parabisura bezala Adam eta Eba bezala madarikatzeko: baina bai zuri milla benedizino emateko: heldu da, fruitu iateaz parabisutik egotziak garen gero, Mariaren fruitua ianik zu parabisura bihurtzeko.

### **3. Pontua**

Heldu da arzain ona legez, ez bere makilaz zuri iazartzeko: baina bai zu bizi eternalera tirartzeko. Zer miserikordia! merezi zenduen gazti-gua, zeren bekhatuaz iauzi zaizkon bere artalde-tik, eta paratzen darotzu barkamendua.

### **4. Pontua**

Heldu aita ona bere ume gastosa gana legez: utzi duzu haren etxea bekhatuaz iauzirik: gastatu duzu haren moiana gorputzeko plazeren ondoan:: behatu zaitza munduari: eman diozu arima Sathanari: alabaina Kristo haldu da hori gizia zuri barkatzeko eta zu leheneko estatu onera bihurzeko borondatean.

### **5. Pontua**

Gizona galdu da bianda batez, erremediatu da bianda batez. Adamen haragiko partaletasunaz gizona kutsatzen da bekhatu originalean eta bekatu hari ditxezkon inkuntru gaixto guztietan: lesu Kristoren haragiko partaletasunaz kobratzen da garazia eta saindutasuna.



# **Errezibi ondoko meditazioa**

## **1. Pontua**

Dohatsu da Kristo gure launa munduan sartu zeneko eguna: orduan, aingeruek bozkarioz bethi zuten airea eta gizonez lurra.

San Simeonek dohatsu ezagutu zuen Jesus haurra bere besoetan errezibitu zuen eguna.

Iuduek dohatsu zedukaten Kristo Ierusalamen asto gainean sarthu zeneko eguna eta bozkarioz benedikatu zuten.

Aingeruek dohatsu aurkitu zuten salbatzailea zeruan sarthu zeneko eguna da eta triunfa.

O ene arima! zuk dohatsu eduki behar duzu egun hau eta eztarotzu bozkario gutiagoren suieta, egun errezibitu duzun gero lainko bat zeure barrenean bere gorputz bere odol, bere arima eta bere iainkotasunarekin.

## **2. Pontua**

Birjinak bederatzi kilhabethez erabili zuen Kristo bere sabel birjinalean eta ohoratua da eternitate guzian. Gurutzen hirur edo laur orenez

baizen etzen egotu salbatzaillea eta mereziz dagoka ezin estima ditzen ohorea. Sepulturako mihiseak hirur egunez estali zuen Kristo bere heriotzean eta ohore handi emaiten zaika. O ene arima, Kristo digneki errezibitzen duzuno, zer ohore, zer ontasu edo zer bertute falta zaitzu?

### *Sainduen hezur ihartuek*

Gorputz idortuek, oraino hautsek, erlikiek badute anhitz bothere miragarri: sendatzen ohi ziren eriak iondone Petriren itzalaz edo iondone Pauloren mokanesaz. O ene arima! ikusazu gorputz sainduaren bertutea infinituki gehiago eta fidanzia handian gomenda, zakizkio debotki. Kristoren petrala ukitzeaz sendatu zeikan behialako emazteari bere sabeldasuna: zer bertutea! Helas! itzalak halako bertutea bazuen, haren haragiak berak zer bertute eztu izanen? Hemen errenda zeite Kristoren miseriardiara: ian duzu haragia eta bizu bere garazia.

### **3. Pontua**

Eztu ahora duzun bezain sarri sakramendu hunek obratzen bere bertute prinzipala, garazia

santifikatzailearen berretura, ez ere zure estomakak ukitu duen pontuan: baina bai bateko eta berzeko bitartean: ahoan duzu eta preparatua doha zure estomakaren barrenera, orduanxe obratu behar du bere bertutea, eta orduan edukazu Kristo baithan osoki zure goga nihorat barraiatu gabe.

Errezibitu ondoan entretenei zaite Kristorekin debozinoan apur bat, ez ludas gisa berehala konporat ilki: etzuen ludasek hain fitetz errezibitu, non etzen pontuan kanporat ilki: pisatu ezan balu zer errezibitu zuen, asko zuen bere konbertitzeko.

Ahalka zaite aingeruek ohore handi dadukaten ofizioa delientki egin gabez, eta zoaz ondoko zazpi aktez.

## **1. Eskearen akta**

O ene Iesus ona! zu zara gu guztien iuge nabusia, eta zuk othoi ene bizizn inditzu zure bihotzaren irabazteko moian guztiak, zu ene heriotzean niri iabetzen. Amen.

## **2. Adorazioaren akta**

O Iesus maitea! adoratzeko zaitut, eta ezaguturik biziaren eta heriotzearen nabusi: zu othoibalua zakizkit bizian eta hilean. Amen.

## **3. Amorioaren akta**

O Iesus maitea! zu zara gizon guzietako ederrena eta gogarakoena, hain ezaguturik maite zaitut neure bihotz guztiaz, berze guztiak bat banaka edo guztiak elkarrekin baino areago. Amen.

## **4. Esperantzaren akta**

O ene Iesus! zeure heriotzeaz eta pasione sainduaz meritatu darotazu parabisua; eta zeror zerura triunfatu igaitea, zabaldu darotazu hango atea: badut esperanza hain herzeko eta segurantzaren konserba nazazu. Amen.

## **5. Eskeraren akta**

O ene Iesus! esker darotzut, zeru guziaren espantuekin zeren zu zeror hain maiz eman zaizkidan aldareko sakramenduan: egin darotazu giritinoak lurraren gainean ahal duken oho-

rerik handiena eta ontasunik aberatsena: guzia balia iazadazu ni guzia zurealde guziz bahitzeko. Amen.

## **6. Ofrendaren akta**

O ene Iesus! zu zara gizon guzietako liberale-na, eta laudorio gehien merezi duzuna, zeren eman darotazun ene arimaren bazkatzat zure gorputza, zure arima eta zure iainkotasuna, ordainez emaiten natzaitzu ni ere naizen guzia eta niri ukitzen zaitan guztia bethikotz ene animako bothere, pensamendu, gutizia eta obra guztiekin. Amen.

## **7. Protestazioaren akta**

O ene Iesus! zure garaziarekin batean maitatuko zaitut beregainki eta fidelki, hala seguratzten zaitut eta prometatzen darotzut, zeren zuk hala nahi duzun, eta zeren zuk ene arimako desirak, guziak sasiaturik, hala konpli dirozun. Amen.

# **Gorputz sainduaren alderako debozinoaz**

Erakutsazu zure debozinoa prosasino publikorik egitean, nola Bestaberriz, eta erietarat dohanean bereginki: anhitz gizaz obligatu zara hunetara.

1. Gauzaren ontasunaz: ezen zer da Kristori iarraitea baino gauza iustuagorik eta sainduagorik?

2. Akzionearen onhestasunaz; ezen zer da zeruaren aitzinean gauza propiagorik, lurrean bere ondotik hain guti darraikon orduan Kristori ohore hau errendatzea baino?

3. Aingeruen exenpluaz: ezendohan leku guzietara badarraitza...

[...]

...raizko Kristo gana humil, eme, obedient, pazient eta xit karitatetsu.

## **3. Pontua**

1. Konsidera leialki iarraitekotz, nola behar duzun gaitzetsi bekhatua.

2. Arthaz betherik egon bethi lainkoaren gogara egiteko.

3. Bizi zite bethi lainkoaren presenzian.

4. Arbuia itzatzu lurreko gauzak lainkoaren amorioz zerukoak bilhatzea gatik.

5. Egitzitzu gauza guziak murmuriza gabe.

6. Obedi bihurtuz, zure superiorak.

7. Iarrait leialki arimen salbamenduari.

8. Egiozu bethi gerla gordina Sathanari, munduari eta haragiari.

9. Lehen hauta zaite lainkoa mortalki, koraino benialki ofensatzera bino zure biziaren galzera.

Herriko patroinaz gauza bera diotsut eta zaren axolduri.

## **Aingeru begiraleaz**

1. Amaren sabelean gatzatu zinen pontutik bazenduen aingeru begiralea, zeren pontuan zenduen beharra begiratzeko eta bathaia deusez trabatu gabe helzeko. O laninko, hau da faborea!

2. Etzaitu hi arteino nihoiz utziko, bai bethi kidatuko: o zer amorioa!

Bekhatorerik obstinatuenek badute bana: ludas etzuen bereak azken hatseraino utzi, ez Antikristo bereak utziko haren bihotzak dirakieno: begiratzen ezpaituzte gaitzetik, ai bedere gutiago bekhatu egitera uzten era hanbatez ifernua gutitzen.

## **2. Pontua**

Nori bere aingerua lagunzen zaika bere heriotzean, iudizio partikularrean: zerura badohaz o zein plazer handia duen aingeruak! Ifernura badoha, hau badu aingeru punitzaillea: iudizio generalean ere aingeruak darama bere kidatua iudiziora.

O ene biziaren begiralea, zer esker emanen darotzut ene bizi guziko minentuez? kiratsaren ihesi dohaz usoak, eta kearen ihesi erleak: alabaina zu etzaituzte urrundu ene ganik ene bizi gaixtoren kiratsek ene ofensek: bethi iraun duzu ene aldean ene alde: ni inspira: ni konsola: ni defenda: ni fabora.



### **3. Pontua**

1. Kontsidera nolako artha diadutzun aingeruak, zer oldareak? zer bisita? zer inguru eta gorabehera derabila zuri kalterik ethor eztakizun amoreak gatik.

2. Ikusazu zein zelo handia duen zue bizi onaz eta saindutasunaz aingeru bazindezi nahiz.

3. Pisa nolako alegria eternala duen, non nahi eta nora nahi dabilan, bethi dakusa lainkoaren bekhoki ederra: bere gomendioko arima salbatzen bazaika, badu loria akzidentala, eta kondentzen bazaika, ezta...

[...]